

# Pentsamendu kritikoak,

garapenez haratagoko begiradak

1. zk.  
Posgarapena eta beste aukera praktikoko batzuk



Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin egin da, *Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak* (2018) proiektuaren esparruan. Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da, eta ez du nahitaz GLEAren iritzia adierazten.

Diruz laguntzen du:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81

48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

1. zenbakiaren (Posgarapena eta beste aukera praktiko batzuk) koordinazioa:

Juan Telleria, Unai Villalba, Yeni García

Azaleko irudia:

Maite Mentxaca Tena

Lege-gordailua: BI-01760-2020

ISBN: 978-84-16257-60-7

1.zk., 2020

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

**Zure iritzia interesatzen zaigu:** Aldizkariari eta/edo haren edukari buruzko zure iritzia helarazi nahi badiguzu, honako galdetegi: <https://forms.gle/4ZMKWmPRLRnayu5w6> hau bete dezakezu edo zuzenean helbide honetara idatzi: [yenifer\\_garcia@ehu.eus](mailto:yenifer_garcia@ehu.eus).



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# Pentsamendu kritikoak,

garapenaz  
haratagoko  
begiradak

1. zk.  
Posgarapena  
eta beste aukera praktikoko batzuk

1. Aurkezpena	<u>4</u>	
2. Editoriala	<u>5</u>	
<i>Juan Telleria eta Unai Villalba</i>		
Garapena dekolonizatuz: pluribertsoari, ongi bizitzeei eta beste alternatiba batzuei buruz, hemen eta orain		
3. Elkarrizketa	<u>7</u>	
<i>Federico Demaria</i>		
Desazkundea, garapenaren eta kolonialismoaren alternatiba		
4. Mugimenduan	<u>11</u>	<u>3</u>
La Mundial kolektiboa	11	
Giza mugikortasuna, bizitzaren iraunkortasuna eta garapenerako lankidetzak: eztabaidarako ekarpenak		
<i>Ana I. Fornés-Constán</i>		
Huelvako Unibertsitateko Diziplinarteko Ikerketa Taldea	14	
Ongi bizitzearen helburuak maila globalean		
<i>Antonio Luis Hidalgo-Capitán eta Ana Patricia Cubillo-Guevara</i>		
5. Pentsamendua kiribilean	<u>19</u>	
Ongi bizitzea, garapenaren alternatiba: ahalmenak eta mehatxuak	19	
<i>Alberto Acosta</i>		
Feminismo dekolonialak eta garapena	27	
<i>Rosalba Icaza</i>		
Gure mugak	36	
<i>Juan Telleria</i>		

## Aurkezpena



Irudia: Hegoa.

***Pentsamendu kritikoak: garapenaz haratagoko begiradak*** aldizkari monografiko bat da, eta hiru zenbakiz osatuta dago. Hegoa institutuak 2019ko urtarrilean abian jarritako *Garapenari buruzko pentsamendu kritikoak: teoriak, ikuspegiak eta esperientziak* proiektuaren parte da.

Argitalpen honen aurretik egindako eztabaida prozesu baten emaitza da, eta, horren bidez, artikulatzeko, gogoeta egiteko eta hedatzeko espazio berri bat eraiki nahi dugu. Horrek emango dizkigu, hain zuzen ere, gaur egungo garapen eredu nagusiari zuzenean eta hainbat mailatatik aurre egiteko ekimenak abian jartzeko gakoak. Izan ere, eredu horrek desiragarria den bakartzat du bere burua, baina, aldi berean, bera da konpondu nahi dituen arazoaren kausa nagusia.

Proiektuan landutako hiru ikuspegiatan sortutako eztabaidak jasotzen dira monografiko bakoitzean.

Hala, lehenengoa *Posgarapena eta beste aukera praktiko batzuk* gaiari buruzkoa da, eta jarrera dekolonialetatik abiatuta planteatutako proposamenak jorratzen dira bertan, hala nola *Sumak Kawsay* edo Ongi(Elkar)Bizitzea(k), Desazkundera edo genero kolonialitatearen salaketa.

Bigarrena *Beste feminismoak eta bizitzaren iraunkortasuna* gaiari buruzkoa da, eta gaur egungo mugimendu feministarentzat giltzari diren proposamenetan sakontzen du, hala nola feminismo beltzean eta dekolonialean, erdigunean bizitzaren iraunkortasuna jartzen duten proposamenetan eta interseksionalitatean.

Hirugarren monografikoa *Jasangarritasun ekologikoa* gaiari buruzkoa da. Gaur egungo krisi ekologikoaren egoera aztertzen dugu bertan, eta ekofeministotik proposatutako alternatibak, trantsizio energetikoak edo elikadura burujabetzak proposatzen ditugu, trantsizio sozio-ekologiko justu eta demokratiko bat lortzen laguntzen duten elementuak baitira.

Aldizkaria hainbat ataletan antolatu dugu, eta gaiak hizkuntza osagarrien bitartez lantzeko ahalegina egin dugu: hiru monografikoetan sarrera elkarrizketa batekin hasiko gara, “Hasteko, elkarrizketa”; gero, teoriaren eta praktikaren arteko zubiak eraikitzen dituzten ekimenak aurkeztuko ditugu, “Mugimenduan”; eta, azken atalean, jardun eraldatzaileen azpian dauden (eta, aldi berean, bertatik sortzen diren) oinarri teoriko horietan sakonduko dugu, “Pentsamenduak kiribilean”.

Orainaldi inperfektuegia eraldatzeko zer aukera ditugun galdetzen duten pertsona eta kolektiboek zuzenduta dago aldizkari hau.

Eskerrik asko zuen ekarpenen bitartez hiru zenbaki horiek argitaratzen lagundu diguzuenoi.

Irakurketak zuen baitan nolabaiteko eragina izatea espero dugu. Esango diguzue!

Iker Etxano, Yeni García, Juan Telleria, Leticia Urretabizkaia eta Unai Villalba  
(Proiektuko talde koordinatzailea)

# Garapena dekolonizatuz: pluribertsoari, ongi bizitzeei eta beste alternatiba batzuei buruz, hemen eta orain

Juan Telleria eta Unai Villalba

Garapenaren logika XX. mendearen erdialdean sortu zen, mundua gabeziaren ikuspegitik azaltzeko: ekonomia eta gizartea Mendebaldeak egin bezala modernizatzeko baliabiderik ez zuten eskualdeak azpigaratutzat hartu ziren. Hazkunde ekonomikoa, hau da, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, garapenaren oinarritzko helburua zela pentsatu zen. Baina berehala jarri zen zalantzan eta kritikatu zen logika hura. Hazkunde ekonomikoak ez zituen nahitaez herritarren ongizate mailak hobetzen (txartu ere egin zitzakeen), eta, horren ondorioz, “benetako” garapena eragozten zuten nazioarteko egituretan eta botere harremantetan zentratu ziren hainbat ikuspegi akademiko eta politiko, 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan.

90eko hamarkadan, kritika horiek bira kualitatiboa egin zuten garapenaren osagai kultural eta diskurtsiboetarako. Horrela sortu zen posgarapena, zeinaren bitartez azaltzen baitira garapenaren logikak egitura diskurtsibo gisa, mundua Mendebaldeko herrialdeen kulturaren onespeneren eta interes ekonomiko eta politikoaren arabera irudikatzen duen egitura gisa alegia. Ikuspegi horretatik, garapena ezarpen kolonialaren bertsio berritza hartzen da, zeinak sustatzen baitituen bai mundua bizitzeko, pentsatzeko eta sentitzeko moduak, bai ingurunearekin, gizartearekin eta geure buruarekin erlazionatzeko moduak. Posgarapenak kritikatu egiten du logika horien izaera unibertsalista, eta *garapenerako alternatibak* bilatzea proposatzen du.

Alternatiba horien bilaketak, ordea, gainditzeko zaila den *impasse* egoera batera eramaten ditu garapenaren ikuspegi kritikoak. Alde batetik, zaila da bizitzaren irudikapen nagusien inertziari aurre egin, luzaroan iraun eta emaitzak eman ditzaketan alternatiba praktikoak egituratzea, izan ere, gero eta gehiago sartzen dira irudikapen horiek mundu globalizatuaren dimentsio guztietan barrena. Beste alde batetik, zaila da gainditu nahi diren onarpenak inplizituki errepikatuko ez dituzten edo garapenaren logikek berenganatu eta erabiltzeari uko egingo dioten alternatibak proposatzea. Tentsio horietatik sortzen dira garapenari buruzko gaur egungo eztabaida kritikoak elikatzen dituzten galderak: Nola egituratu beste era batera pentsatzeko, bi-



Irudia: Hegoa.

zitzeko eta sentitzeko espazioak ahalbidetzen dituzten alternatiba praktiko eta bideragarriak? Aukera horiek aplikagarritasun unibertsalak izan behar dute, ala gainditu nahi den azpiratze mota erreproduzitzea ekarriko luke horrek? Unibertsalak ez balira, nola egituratuko genuke bizikidetzak, gero eta globalizatuagoa den mundu batean? Non aurki ditzakegu alternatiba bideragarrien adibideak eta zer ikas dezakegu horietatik? Horiek dira monografiko honek lantzen dituen galderetako batzuk.

Monografikoaren lehen atalean, “Elkarrizketa” izenekoan, Federico Demaria Bartzelonako Unibertsitateko irakasle eta Research and Degrowth-eko kidearekin hitz egingo dugu, eta *Pluribertsoa: posgarapenaren hiztegi bat* liburua aurkeztuko digu. *Pluribertso* kontzeptuaren bidez, planetako toki askotan existitzen diren eta martxan dauden garapenaren alternatiba ugari erakutsi nahi dituzte. Alternatiba ugari daude, sustrai, jatorri eta ñabardura askotakoak, hala nola: ekosozialismoa, ekofeminismoa, desazkundera; edo *Sumak Kawsay!* Ongi Bizitzea, *Swaraj*, *Ubuntu*, eta abar; izan ere, aldeak badituzte ere, guztiek dute oinarri komun bat, “Alternatiben Sare Globala” ekimenaren bidez indartu eta egituratu daitekeena. Adibide gisa, desazkunderari buruz hitz egiten digu: herrialde industrializatuaren ekoizpena eta kontsumoa murriztera bideratutako Ipar Globaletik demokratikoki kudeatutako birbanaketa proposamena eta ingurumen iraunkortasuna, justizia soziala eta ongizatea lortzeko baliabidea.

Bigarren atala, “Mugimenduan” izenekoan, La Mundial kolektiboko Ana Fornés-Constánen testuarekin hasten da. Anak gizakien mugikortasunari buruz hitz egiten digu, bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, eta ohartarazten digu garapenerako lankidetzak migrazio kontroleko politikak indartzeko truke txanpon gisa erabili izan dela. Hainbat indarkeria salatzen ditu pertsonen mugikortasunaren inguruan, eta aipatzen du

indarkeria horiek modu esponentzalean areagotzen direla emakumeen kontra egiten direnean, izan ere, arrazismo instituzionaleko tresnetan indarkeria estrukturalak (indarkeria fisikoa, sexuala, ekonomikoa edo sinbolikoa) sustatzen dituzte, eta galdera hau egiten digu: zer gorputzek eta zer bizitzek dute mugikortasunerako aukera? Amaitzeko, mugikortasuna giza izaeraren parte gisa kokatzeko beharra azpimarratzen da, eta orobat aipatzen da beharrezkoa dela jardun politikoan arrazakeriaren aurkako jarrera txertatzea eta herritartasun estentsibo demokratikogoen eruedetara aldatzea.

“Mugimenduan” ataleko bigarren testua Huelvako Unibertsitateko Diziplinarteko Ikerketa Taldeko Ana Patricia Cubillo-Guevara eta Antonio Luis Hidalgo-Capitani dagokie. “Ongi bizitzearen helburuak maila globalean” izeneko lana aurkezten digute. Lehenik, 2030 Agendaren ordezkoko proposamen bihur litezkeen transgarapena eta transmodernitatea paradigmaren oinarriak azaltzen ditu; eta, horietan, ezinbestekoa da modernitatea (paradigma kultural gisa) eta garapena (ongizatearen paradigma moderno gisa) zalantzan jartzen dituen ikuspegi epistemologikoa aintzat hartzea. Jarraian, Ongi Bizitze Globalaren Helburuak aurkezten ditu, eta horien barruan hiru helburu orokor (iraunkortasun biozentrikoa, gizarte ekitatea eta gogobetetze pertsonala) eta 21 helburu espezifiko azaltzen dituzte. Edonola ere, hiru dimentsioren arabera antolatuta daude guztiak: naturako izaki guztien arteko harmonia, gizaki guztien arteko harmonia eta norberaren harmonia.

Amaitzeko, hirugarren atalak “Pentsamendua kiribilean” izenburua du, eta egile hauen testuek osatzen dute: Alberto Acosta, Ekuadorreko ekonomista eta Batzar Konstituziogileko presidentea; Rosalba Icaza, ekintzaile feminista dekoloniala eta Rotterdango Erasmus Unibertsitateko irakaslea; eta Juan Telleria, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

Albertok modernitatetik haratago dagoen Ongi Bizitzeaz hitz egiten digu, garapena gaunditzeko aukera gisa. Ildo horretatik, egileak azpimarratzen du Ongi Bizitzeak ez duela “hobeto bizitzea” adierazten, baizik eta harmonian edo orekan bizitzea. Horregatik aipatzen ditu “ongi bizitzeak” edo “bizikidetzak”, bai eta *Pacha Mamare*-kin harmonian bizitzea ere, eta azpimarratzen du paradigma horren sorburu den kosmibisio indigena andino-amazoniko horrek berezkoak dituen printzipioak: erlazionaltasuna, elkarrekotasuna eta osagarritasuna. Horrez gainera, hainbat arrisku ere aipatzen dizkigu, esate baterako, gobernuen kooptazio diskurtsiboa Ongi Bizitza-

ri dagokionez, beste helburu batzuekin; edo Ongi Bizitzearen globaltasun uniformatzailea bilatzea, lurralde eta komunitate espezifikoetan hainbat aukera zehatz eta ekintza erradikal sustatu ordez.

Rosalbak norberaren enuntziatio lekua kokatzeko beharraz hitz egiten digu, eta horregatik aurkezten du bere burua Red Transnacional Otros Sabereseko eta Unitierra Oaxaca Lurraldeko Unibertsitateko kide gisa. Modernitatearen/Kolonialitatearen, Garapenaren eta Generoaren oinarri buruzko funtsezko galdera batzuei erantzuten die Rosalbak bere testuan, ikuspegi feminista dekolonialetik betiere: Garapenak erantzun al diezaioke luraren eta “beste” bizitzaren sufrimenduari eta kontsumoarekin estrukturalki inplikaturik ez dagoen bizitza baten aukerari? Nolatan ematen diogu zentzua modernitatea/kolonialitatea eta, espezifiki, generoaren kolonialtasuna bizitzen eta irudikatzen ditugun moduari? Nork pentsatzen du zer gorputzek duten generoaren esparrua ekintza performatibo gisa eta zein diren ikuspegi horren bitartez ezabatutako gorputzak? Zer gertatzen da gorputza Mendebaldeko feminismo antiesentzialistaren jardunez bestelako genealogia eta jardunen arabera *sentipentsatzen* denean? Generoa funtsezko jarrera epistemikoa gisa deskolonizatzea proposatzen du, eta feminismo dekolonialak, komunitario lurraldekoak, arrazismoaren aurkako afro-europarrak eta beheko eta ezkerreko jarduerak aldarrikatzen ditu, horietatik abiatuta taldean eraikitzen eta sendatzen jarraitzeko.

Amaitzeko, Juanek gogoeta kritiko bat egiten du, garapen hegemonikoaren diskurtsoen eta horiei aurre egiten saiatzen diren alternatiba kritikoen oinarri funtsezkoenei buruzkoa, hain zuzen ere. Horretarako, Mendebaldeko filosofiaren hastapenetara garamatza testuak. Filosofia horretan ezarri baitziren gerora Mendebaldeak ulertu duen partikularren eta unibertsalaren arteko harremana ulertzeko oinarri hartutako kontzeptuak. Kultur tradizio horretan, partikularretik unibertsalerako igarobide gisa ulertu da aurrerapena, eta Europak garapen horren abangoardiatzat hartu du bere burua. Horregatik, hartzen dira Europa (eta Mendebaldea, oro har) garapenaren logika hegemonikoetatik jarraitu beharreko eredu gisa. Testua amaitzeko, gogoeta bat egiten da, eztabaida erabaki baino gehiago, gogoeta egiten jarraitzeko gonbita egiten diguna: Garapenerako alternatibak bilatzen ditugunok gai al gara garapenaren logikak eraiki diren zimendu oinarrikoenak gaunditzeko? Edo, aitzitik, horiek errepikatzen ari al gara?

## Desazkundera, garapenaren eta kolonialismoaren alternatiba

Federico Demaria



Irudia: Federico Demaria.

**Federico Demaria:** Ekonomia Ekologikoko eta Ekologia Politikoko irakaslea Bartzelonako Unibertsitatean, eta ikerlaria UABeko Institut de Ciència i Tecnologia Ambientals institutuan. Desazkunderaren ikerketan eta zabalkundearen diharduen Research & Degrowth taldeko kide da. Ingurumen justiziaren inguruko mugimendu globala aztertzen eta horri laguntzen diharduen *Ingurumen Justiziaren Atlas*a ikerketa proiektuko kide da. Giacomo D'Alisa eta Giorgos Kallisekin batera *Decrecimiento: un Vocabulario para una Nueva Era (Desazkundera: Hiztegi bat Aro Berri baterako)* (Icaria, 2015) liburua argitaratu du, zeina itzuli baiten hamar hizkuntzatarara baino gehiagotara. Horrez gain, Ashish Kothari, Ariel Salleh, Arturo Escobar eta Alberto Acostarekin batera, *Pluriverso. Un diccionario del posdesarrollo (Pluribertsoa: Posgarapenaren hiztegi bat)* (Icaria, 2019) argitaratu du.

**Juan eta Unai:** 1992an, Gerra Hotz luzearen amaieran, Wolfgang Sachs eta beste pentsalari kritiko garrantzitsu batzuek *Diccionario del desarrollo. Una guía del conocimiento como poder (Garapenaren hiztegia. Gida: Ezagutza botere gisa)* argitaratu zuten. Berehala bihurtu zen erreferentziazko testu bat posgarapen sortu berriarentzat. Ia hiru hamarkada geroago, bestelako testuinguru politiko, ekonomiko, sozial eta kultural batean (baina ez hain bestelakoa aldi berean), *Pluriverso. Un diccionario del posdesarrollo (Pluribertsoa: Posgarapenaren hiztegi bat)* kaleratu da. Zergatik da liburu hau beharrezkoa orain?

**Federico:** Garapenaren kontzeptua 1940ko hamarkadaren amaieran sortu zen gaur egungo konnotazioarekin. Orduan lotu ziren garapen ekonomikoa eta herrialde industrializatuen ohiko diren baldintzak eremu azpigaratueta erreplikatzeko bidea arintzeko prozesua. Ga-

rapenaren kontzeptuak gizarte zientzietan izan duen historia eginez gero, funtsezko lau une nabarmenduko genituzke: 1) modernizazioaren teoria 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, hazkunde ekonomikoari buruzko teoriekin; 2) mendekotasunaren teoria, marxismoan oinarritua, eta 1960ko eta 1970eko hamarkadetan hari lotutako ikuspegiak; 3) garapenari egindako kritikak, garapen alternatiboari buruzko diskurtso kultural gisa, 1990eko eta 2000ko hamarkadetan; eta, berrikiago, 4) garapenaren alternatibei buruzko eztabaidak. Oinarritzko hiru paradigmatik teoria liberala, marxista eta posestrukturalista izango lirateke, hurrenez hurren. Lau garren uneari dagokionez, zaila da oinarritzko paradigma zein izango litzatekeen esatea, nahiz eta ekologia politikoak eta feminismoek zerikusirik handia duten.

Kiritika ugari egin zaizkio garapenaren kontzeptuari eta jardunari, ekonomiaren, kulturen, ekologiaren zein generoaren ikuspuntutik.

*Diccionario del desarrollo* lanaren helburua garapenari lotutako kontzeptu nagusiak (pobrezia, aurrerapena, baliabideak, teknologia, etab.) problematizatzea zen, *Pluriverso* lanak, aitzitik, mundu osoan sortutako garapenaren alternatibak ezagutzera eman nahi ditu.

Diskurtso nagusia saiatu da horiek guztiak adjektibo berrien bitartez neutralizatzen, baina funtsezko aldaketarik gabe. Adibidez, 80ko hamarkadako garapen iraunkorraren kontzeptua da 70eko hamarkadan hazkundearen muga ekologikoei buruzko eztabaida erradikalen erantzuna. Politikaren eta diskurtsoaren alorrean, arrakasta handia izan da, ahots kritikoenak isilaraztea lortu duelako, baina ikuspegi ekologikotik, porrot handia izan da, ingurumen krisiak okerrera egiten jarraitzen duelako.

Situazionistek zioten moduan, “hizkuntza boterearen bizilekua da”. Horregatik dira hitzak hain garrantzitsuak. *Diccionario del desarrollo* lanaren helburua garapenari lotutako kontzeptu nagusiak (pobrezia, aurrerapena, baliabideak, teknologia, etab.) problematizatzea zen, *Pluriverso* lanak, aitzitik, mundu osoan sortutako garapenaren alternatibak ezagutzera eman nahi ditu. Bien arteko alde nagusia da lehenak kritikan eta erresistentzian jartzen duela arreta, eta bigarrenak, berriz, azpimarratu nahi du beste mundu batzuk posible izateaz gain, badaudela dagoeneko. Lehenaren errealista da, eta garapenarekin zer arazo dauden nabarmentzen du; bigarrenak, ordea, beste modu batera bizitzera bultzatzen dezan esperientzia positiboak jartzen ditu mahai gainean. Bi ikuspegiak elkarren osagarriak dira, guztiz.

**Juan eta Unai: Izenburuak adierazten duen bezala, pluribertsoaren kontzeptua da goetaren ardatz nagusia, begirada aniztasuna artikulatzeko elementu komuna, nolabait esatearren. Zer ekarpen egiten du kontzeptu horrek? Zergatik merezi du erdigunean jartzea?**

**Federico:** Azterketa posestrukturalistek, garapenaren oinarri direnek, zalantzan jartzen dituzte garapenaren oinarri kultural nagusiak.

Garapena herrialde industrializatuen testuinguruan azaleratzen den egitura sozial gisa ulertzen da, eta mundu osoan nagusitzen da, egitura unibertsal gisa. Alde horretatik, garapenak unibertso bakarra adierazten du, *Mendebaldekoa*. Ideia da aurrerapen lineala, ekoizpenaren eta kontsumoaren areagotze infinituekin, ona izango litzatekeela guztiontzat. Baina badakigu hori ez dela horrela. Joan Martínez Alierrek<sup>1</sup> dioenez, BPGaren hagaxka magikoa “jendea doktrinatzeko asmakizun metafisikoa da”. Horren aurrez aurre iruditu zitzaigun Pluribertsoaren kontzeptuak agerian jar zezakeela errealitatea eta gure asmoa. Zapatisten beren hitzetan, “Mundu asko sartzen diren mundu bat” izango litzateke hau.

*Pluriverso* liburuak hiru zati ditu. Lehen atalean (“Garapena eta haren Krisiak: Esperientzia globalak”), kontinente bakoitzeko autore batek modu kritikoa aztertzen ditu garapenak bere eskualdean dituen eraginak. Horrek bigarren atalari zabaltzen dio atea (“Lurra unibertsalizatzea: Irtenbide erreformistak”), krisi globalari soluzio teknokratiko konbentzionalak, gerentziari dagozkionak edo merkataritzaren konponketari dagozkionak berrikusten dituen, “nekazaritza klimatiko adimendunetik”, “lurreko sistemaren gobernantzara” eta “transhumanismora”. Sarreara horiek frogatzen dute zergatik ez dituzten proposamen erreformista konbentzionalak gaur egungo gizarte eta ingurumen arazoak konpontzen, eta zergatik areagotzen dituzten, kasu askotan, edo atzeratzen dituzten, kasurik onenean, hurbiltzen zaizkigun kolapsoak. Hirugarren atala: “Herrien pluribertsoa: ekimen eraldatzaileak” hiztegiaren atal nagusia da. Hiztegi horrek planeta osoan sortzen ari diren alternatiba teoriko erradikalen, ikuspegi espiritualen eta “mundu formen” kontakizunak eta eguneroko praktika iraunkorrak eskaintzen ditu.

Alternatiba aniztasun horrek erabat koloniala eta patriarkala den modernitatearen bazterretik hitz egiten du, bai periferia kolonialetatik, bai metropolietatik. Ipar Globaletik ekosozialismoa, ekofeminismoa eta desazkundera datoz, eta horietako bakoitzak mugimenduen mugimendu indartsu bat eratzen laguntzen du. Hegoalde Globaletik, zenbait kontzeptu inspiratzaile nabarmentzen ditugu, hala nola Sumak Kawsay edo Ongi Bizitzea (ongo bizitzeak), Swaraj, Ubuntu, Commoning, Communalidad, Agaci-

1 [www.vilaweb.cat/noticies/joan-martinez-alier-el-pibes-un-invent-metafisic-per-disciplinar-la-gent](http://www.vilaweb.cat/noticies/joan-martinez-alier-el-pibes-un-invent-metafisic-per-disciplinar-la-gent)



ro, Agdals, Hurai, Ibadism, Shohoj eta gehiago. Liburuak, halaber, munduko erlijio nagusien bertsio sozialki kritikoa aitpatzen ditu. Arundhati Royk esan zuen bezala, “Beste mundu bat posible da, eta, are gehiago, bidean da; egun la-sai batean, haren arnasketa entzun dezaket”.

**Juan eta Unai: *Desazkunde* kontzeptuak, berez, ez zuen hiztegi berrian duen presentzia izan 1992an. Nola egokitzen da kontzeptu hori Pluribertsoaren logikan? Nola egitura-tzen da beste proposamen posdesarrollista batzuekin?**

**Federico:** Hazkunde ekonomikoaren kritika funtsezkoa da *Garapenaren Hiztegia*. Izan ere, hitza 150 alditan baino gehiagotan agertzen da testuan. Sarreran, honela dio Wolfgang Sach koordinatzaileak, oso modu esplizituan: “monokulturaren zabalkundeak higatu egin ditu hazkunderari begira dagoen gizarte industrialaren alternatiba bideragarriak, eta modu arrisksuan mutilatu du gizateriak erantzun sortzaileen bitartez etorkizun gero eta desberdina-goari aurre egiteko duen gaitasuna”. Izan ere, gehienetan, garapen eta hazkunde ekonomiko sinonimo gisa erabiltzen dira.

Besteak beste, desazkundera garapenaren alternatiba bat da. Frantzian sortu da, 2000. urtetik aurrera, eta gero indartu egin da Europako beste herrialde batzuetan. Adibidez, 2018ko irailean, 200 zientzialarik baino gehiagok gutun ireki bat idatzi zieten Europako erakunde nagusiei, *Europa, hazkunderaren mendekotasuna gainditze-ko garaia da* izenburuarekin; gero, ia 100.000 lagunek sinatu zuten. Kasu gehiago egin izan baligute, hobeto egongo ginateteke pandemiari erantzuteko.

Oro har, desazkunderak zalantzan jartzen du hazkunde ekonomikoaren nagusitasuna, eta herrialde industrializatueta ekoizpena eta kontsumoa birbanatu eta demokratikoki kudeatu dadin eskatzen du, ingurumen iraunkortasuna, justizia soziala eta ongizatea lortzeko bidea baita. Bizitza aberasgarri eta sakonaren aldeko proiektua da, plazer sinpleekin gozatzearen aldekoa, gehiago partekatuz eta erlazionatuz eta gutxiago lan eginez, berdintasun handiagoko gizarteetan. Desazkunderaren helburua gauzak berariaz motteltzea da, gizakiei eta lurreko sistemei ahalik eta kalte gutxien eragiteko eta ustiapena murrizteko.

Zer gertatzen da Hegoaldeko herrialdeekin? Desazkunderak ez du garapena ordezkatu nahi,

**Besteak beste, desazkundera garapenaren alternatiba bat da.**

eta nagusitasun berri bat izan nahi du mundu osoan. Gure esperientzia Mendebaldekoak ez diren herrialdeetara proiektatu ordez, guretzat interesgarriagoa da beren komunitateetatik, gizarte zibikoetatik eta ingurumen eta gizarte justiziako taldeetatik datozen proposamenetatik ikastea. Orain, hazkunde ekonomiko politikaren publikoaren ardatz gisa kritikatzeko garrantzizkoa da herrialde guztientzat, eta halaxe geratzen da agerian gure liburuko hainbat kapitulutan.

**Juan eta Unai: 1992tik 2019ra bitarteko denbora-tartera itzuliz: Zer ikasi dugu ia hiru hamarkada hauetan izandako esperientziatik eta borroketatik? Ikaskuntza horretatik abiatuta, zer arrisku ditugu gaur egun? Nola egin diezaiekegu aurre?**

**Federico:** Galdera zaila da. Nik uste dut ikasi genuela zein garrantzizkoak diren kritika eta erresistentzia, baina geure narrazioak ere behar ditugula. Beste era batera esanda, diagnosiaz gain (zer gizarte arazo ditugun eta nork duen horren ardura), prognosiaz ere eztabaidatu behar da (zer egingo dugun, nola, nork egingo duen eta norentzat). Adibidez, duela gutxi egin zen Vienan desazkunderaren batzarra, eta zehazki eraldaketa sozio-ekologikorako estratejiei buruzkoa izan



Irudia: Federico Demaria.

**Iberiar penintsulan, indar handia ikusten dut mugimendu feministen eta ingurumenekoen bateratzean.**

zen. Gainera, lehen online batzarra izan da eta ia 5.000 lagunek parte hartu dute guztira.

Pandemia aukera bat izan daiteke, edozein krisi bezala, baina emantzipaziorako gizarte mugimenduek ez badute eraginik agenda politikoan, normaltasun autoritarioago bat izango dugu.

Funtsezkoa iruditzen zait garapenaren alternatibak bateratzea. *Pluribertsoa* liburua inbentario bat da; hau da, lehen urratsa baino ez. Aukeren artean antzekotasunak daude, baina

baita desberdintasunak ere, eta garrantzitsua da horiek agerian uztea, ikasi ahal izateko, baina ez banatzeko. Helburu horrekin jarri da abian *Alternatiben Sare Globala* ekimena. Iberiar penintsulan, indar handia ikusten dut mugimendu feministen eta ingurumenekoen bateratzean. Uste dut bi horiek direla azken urteotan mobilizazio eta eragin ahalmen handiena izan dutenak. Hain zuzen, aukera bat litzateke zenbait mugimendu sozial mugimendu feministan elkartzea, mugimendu feminista horren aniztasunagatik, antolaketagatik eta kontzeptu zabaltasunagatik integratzeko ahalmen handia baitu. Esate baterako, ez dut *Desazkundea* eslogan nagusi bihurtzerik nahi. Beste ikuspegi bat da, beste askoren artean, eta baliagarria izan daiteke *Pluribertsora* iristeko borrokan. Politikoki, garrantzitsua da elkarguneak bilatzea, zatiketa guneak bilatzea baino gehiago, aniztasuna errespetatuz betiere.



Irudia: Federico Demaria.

# Giza mugikortasuna, bizitzaren iraunkortasuna eta garapenerako lankidetzak: eztabaidarako ekarpenak

Ana I. Fornés-Constán, La Mundial kolektiboko kidea

**Nor gara:** La Mundial Kolektiboa **Helbide honetan gaude:** <http://lamundial.org/>

Garapenerako lankidetzak giza mugikortasunarekin nola erlazionatu izan den pentsatzen badugu, larritu egiten gara, truke txanpon gisa erabili izan baita, migrazioaren kontrol politikak sartzeko edo indartzeko. Ibilbide luzea dago era horretako jardun maltzuraren inguruan, hala nola kogarapena Afrika Planaren aurrean edo 2005ean kaiukoaren krisia nola konpondu zen, edo Marokon duela gutxi hesi paralelo eta are sendoago bat eraiki izana, Ceuta eta Melillakoak inguratuz. Jardun horiek talka egiten dute eskubideen ikuspegian edo lurraldearen defentsan oinarritutako lankidetzarekin eta ongi bizitzeekin.

*Migrazio* hitza erabili beharrean *giza mugikortasuna* hitza erabiliko dugu, askoz ere zabalagoa delako bigarrena. Oro har, giza mugikortasunera hurbiltzen garenean, migrazio mugimenduak ikuspegi sozial, ekonomiko edo politikoetatik azaltzeko egiten dugu. Baina migrazio kontrolen dinamiken atzean ezkutatuta geratzen diren errealitateak ikusteko ezinbestekoa da atzera egitea.

Alde batetik, migrazio kontrolak ez ditu migrazio fluxuak arautzen. Hainbat kontraesan daude horren inguruan, Claire Rodierrek *El negocio de la xenofobia* lanean azaltzen duen moduan<sup>1</sup>. Kontraesan horietako batzuk, esate baterako “migrazioaren arazoa” deiturikoa, lehen mailako mehatxutzat hartu dira, izan ere, beti dago salbuespen egoeran eta hartarako neurriek ez dute hura konpontzen, eta, aitzitik, behin eta berriz jartzen dute saihestezina den zerbait balitz bezala, neurri horiek berek sortzen baitute.

Bestalde, migrazio fenomenoari lotuta hiperbizaratzen dira pertsonak, eta beste eragile batzuk, ostera, enpresak edo estatuak berak adibidez, alde batera uzten dira, nahiz eta horiek izan irabaziak lortzen dituztenak sekurizazioarekin eta mugako kontrolek sortutako dinamikekin.

Migratzaileak ez dira soberan daudenak edo erabili eta botatzeko modukoak, etekin handiak eragiten baitituzte Sassenek “globalizazioaren kontrageografiak” deituriko horretan<sup>2</sup>: “pertsona pobreak –Bauman-en botatzekoak edo pariak– balio sozial txikiko gisa eta sistemarentzat zama handiko gisa agertzen bazaizkigu ere, zirkuitu horiek erakusten dute zenbateraino gailendu diren irabaziak sortzeko garrantzizko iturri gisa, bai ezkutuko ekonomiari dagokionez, bai gobernuzko diru-sarrerei dagokienez”.

Mugaz gaindiko zirkuituek era askotako kapitala sortzen dute, bai bide legetatik, bai legez kanpokoetatik. Zehazki, pertsonen mugikortasuna dela-eta, estatuen diru-sarrerei dagokionez honako hauek zerrenda genitzake: *buroerrepresioaren* bidezkoak (bisak eskatzea, egoteko baimenak, bai bizitzekoak bai lan egitekoak, eta horretarako behar den dokumentazio mota oro, hala nola jaiotza ziurtagiriak, aurrekari penalak, etab.), bai migrazio kontrolaren baitako industria militar eta polizialaren bidezkoak, eusteko (mugak), atxilotzeko edo deportatzeko sisteman, bai truke txanpon gisa bestelako merkataritza eta diplomazia trukeetan.

Horrekin guztiarekin lotuta, enpresen lobby oso bat dago, segurtasunaren alorreko teknologien

<sup>1</sup> RODIER, C. (2013): *El negocio de la xenofobia. ¿Para qué sirven los controles migratorios?* Madril. Clave Intelectual.

<sup>2</sup> SASSEN, S. (2003): *Contrageografías de la globalización Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Madril. Traficantes de Sueños.



Irudia: Robert Bonet.

industriaren bidez mugaz gaindiko zirkuituetan aberasten dena. Hainbat enpresa, hala nola Globalia (Viajes Ecuador, Halcón Viajes, Touring Club eta Air Europa), Swiftair, Barceló viajes eta Air Nostrum (Iberia), deportazio hegaldien kudeaketa lortzeko lehiatzen dira; Dragados, Ferrovial edo EULEN enpresak, berriz, Ceuta eta Melillako hesien mugako kontrola lortzeko; Indra, Kanpoko Zaintzako Sistema Integratua (SIVE) ezartzeko; edo Espainian CIEen kudeaketan Gurutze Gorriak duen lankidetzaz eztabaidatua edo Nuadibúko atxikipen zentroan (Mauritanian), “Guantanamo” ere deituan, Espainiako lankidetzaren funtsekin finantzatua.

Giza mugikortasunaren inguruan hainbat interes egoteaz gain, gaur egungo mundu globalizatuaren beste kontraesan batzuetan sakontzeko arrakala bat eragiten du fenomeno horrek, non, kapitalaren eta, nolabait, merkantzien mugimendu askearen aurrean, *bridatu* egiten baita lan indarra, migrazio kontroleko politikak erabiliz, Mezzadrak ondo adierazten duen bezala<sup>3</sup>.

Indarkeria horiek modu esponentzian area-gotzen dira emakumeen kontra egiten direnean; izan ere, indartu egiten dituzte indarkeria estrukturalak (indarkeria sexuala, fisikoa, ekonomiko edo sinbolikoa) arrazismo instituzionalaren tresnetan eta mugikortasunaren industrietan. Emakumeen kontrako indarkeria ez da hain nabarmena, beste zirkuitu batzuetan jarduten due-

lako. Askoz ere atxiloketa gutxiago egin dira profil etnikoaren arabera sarekadetan, baita Atzerriarrak Barneratzeko Zentroetan ere (CIE). Deportazioak ere gutxiago dira. Baina egia da, halaber, emakumeen baldintzak askoz ere okerragoak direla egitura horietan. Eta egia da, orobat, ez zaiela jazartzen, neurri handi batean bederen, beste sistema batzuetan sartzen direlako, nagusiki zaintza sistemetan eta prostituzio sistemetan. Emakumeen salerosketa konplexuegia da hemen lantzeko, baina, nolahi ere, aipatu behar da gaur egungo mugen sistemari esker dela posible fenomeno global gisa.

Gaur egungo erresistentzia interesgarrietako bat “transnazionalen inpunitearen arkitektura”<sup>4</sup> deiturikoa desmuntatzeko estrategiak dira, hain zuzen ere, “Zuzenbide Korporatibo Globalaren” garapen osoagatik, zeinak kontrastatzen baituen giza mugikortasunaren gaineko kontrol *totalitarioarekin* eta *mugimenduan dauden herritarren* eskubideekiko babes juridiko ezarekin.

Baina bada arrakala handiago bat ere, eta pribilegio gisa zehaztua. Zer gorputzi eta zer bizitzari ematen zaie mugitzeko aukera? Horretan sakontzen badugu, eta ikuspegi antropologikotik aintzat hartzen badugu, gure giza izaeraren parte gisa, zaila da justifikatzea zergatik ukatzen zaien zenbait gizakiri mugitzeko edozein aukera eta zergatik sartzen diren pertsona horiek “migratzaile” kategorian, baita beren lurraldetik irteten aurretik ere. Zer pentsatuko genuke pribilegio bat balitz hizkuntza? Eta horren erabilera eta horretarako sarbidea kontrolatuko balira?

Ezin diogu bizitzaren iraunkortasunari heldu bizitza *guztiak* kontuan hartu gabe. Eta ezin diogu orobat heldu arrazakeria instituzionalak sortzen eta betikotzen duen desberdintasun sare hori guztia eta, bereziki, mugetako tresnak –erakunde sakrosantu eta mugiezin gisa aurkezten zaizkigunak– desegituratzen dituzten estrategiak osatzen hasi gabe.

Oro har, migrazioen eta giza mugikortasunaren inguruko lankidetzaren arloko ikuspegiek migrazio kontrolean jartzen dute arreta, jatorrizko herrialdeen baldintzak *garatzeko* ideian hain zuzen, eta, horrela, mugen sistema indartzen da.

3 MEZZADRA, S. (2005): *Derecho de Fuga. Migraciones, ciudadanía y globalización*. Madril. Traficantes de Sueños.

4 HERNÁNDEZ, R.; RAMIRO, P. (2015): *Contra la Lex mercatoria. Propuestas y alternativas para desmantelar el poder de las empresas transnacionales*. Madril. Icaria.

**Ezin diogu bizitzaren iraunkortasunari heldu bizitza guztiak kontuan hartu gabe. Eta ezin diogu orobat heldu arrazakeria instituzionalak sortzen eta betiketzen duen desberdintasun sare hori guztia eta, bereziki, mugetako tresnak desegituratzen dituzten estrategiak osatzen hasi gabe.**

*Zer eginkizun bete dezake mugikortasunak bizitzaren iraunkortasunari edo ongi bizitzeei dagokienez?*

1. Mugikortasuna giza izaeraren parte gisa birkokatu beharko litzateke, eta haren gaineko edozein kontrol mota justifikatzeari utzi beharko litzaioke. “Migrazio seguru eta ordenatuak” esamoldea izugarri gaiztoa da, mugikortasunean dauden pertsonengan baino jartzen ez duelako arreta, *migratzaile* gisa kategorizatuz, “kudeatu beharreko” kolektibo bat balitz bezala, eta arrazakeria mota guztiak justifikatzen dituelako. Hain zuzen ere, arrazakeria instituzionalaren funtsa prozesu hori ikusezin bihurtzea da, problematika “migratzaileengan” fokalizatzeke, “migratzailea” kategoria bateratzaile eta bereizletzat hartuta, eta, aldi berean, pertsonak egiten ditu bere egoera desberdinaren erantzule, eta ez gure *apartheid* sistema globala.
  2. Ezinbestekoa da arrazakeriaren aurkakoa jarri jardun politiko gisa eta azterketarako jardun gisa aintzat hartzea, horrek ondorioz dakarren guztiarekin, pribilegioak berrikusteari, jardunak berrikusteari eta beste azterketa eta ekintza kategoria batzuk bilatzeari dagokionez. Era berean, utzi egin behar zaio mugimenduan dauden herritarren eta pertsona arrazializatuen lidergoak eta agentziak ikusezin bihurtzeari.
  3. Era berean, beharrezkoa da era guztietako eraldaketarako ikerketak eta proposamen politikoak bultzatzea, *apartheid* egoerak *de facto* ezartzen dituzten sistema juridikoak ezabatzeke (hala nola eskubideetarako sarbide desberdina edo ezdeusa), bai eta mugimenduan dauden pertsonak babesteko nazioz gaindiko lege esparru oso bat garatzea eta arrazismo instituzionalaren dispositibo guztien –hala no-
- la mugak eta kontrolerako, atxiloketarako eta deportaziorako sistemak– aurkako borrokaren alde egitea.
4. Aurrekoarekin lotuta, zalantzan jarri behar da gaur egungo herritartasun formalaren eredu, fundamentalismo zuriei eta Mendebaldeko eusten dielako, eta **herritartasun estentsiboko eredu demokratikoagoetara igaro behar da**, komunitate politikoaren mugak lurraldean bizi direnengana zabalduz, Balibarrek<sup>5</sup> beste egile batzuekin batera proposatzen duenaren ildotik.
  5. Garrantzizkoa da, halaber, **nazionalismo metodologikoa bertan behera uztea**. Giza mugikortasunak ekarpenik egin badiezaguke, honako hau litzateke: gaur egungo arazoei ezin zaie aurre egin Nazio-estatuen esparru mental, politiko edo instituzionaletatik, baizik eta fenomenoak nazioz gaindikoak direla oinarri hartuta.
  6. Eta, azkenik, gizarte gisa dagozkigun bi kontu. Batetik, **muga sistemarekiko eta atzerritartasun legeekiko desobedientzia zibil masiboa sustatzea**, mugimenduan diren herritarrek egiten duten bezala, eta orobat mugikortasunaren kriminalizazioaren aurka borroka egitea.
- Bestetik, **justizia, egia, erreparazioa eta ez errepikatzeke berme prozesuak bultzatzea, gaur egungo muga sisteman hildako eta desagertutako biktima guztientzat.**

<sup>5</sup> BALIBAR, E. (2005): *Violencias, identidades y civilidad. Para una cultura política global*. Barcelona. Gedisa.

# Ongi bizitzearen helburuak maila globalean

**Antonio Luis Hidalgo-Capitán eta Ana Patricia Cubillo-Guevara,**

Huelvako Unibertsitateko Diziplinarteko Ikerketa Taldeko kideak

**Nor gara:** Huelvako Unibertsitateko Diziplinarteko Ikerketa Taldea

**Hemen aurkituko gaituzu:** [alhc@uhu.es](mailto:alhc@uhu.es), [ana.cubillo@dsts.uhu.es](mailto:ana.cubillo@dsts.uhu.es)

Transgarapen transmodernoaren ongizatearen paradigma (Hidalgo-Capitán eta Cubillo-Guevara, 2016) jendearen behar materialak eta im-materialak asetzea bilatzen duen hura da. Horretarako, partaidetza prozesu bat behar da, non erabakiko baiten, ingurumenaren iraunkortasunaren, gizarte ekitatearen eta asebetetze pertsonalaren printzipioen arabera, zein diren premia horiek eta zer baliabide erabili behar diren behar horiek asetzeko. Paradigma horretan, non natura, gizarte eta pertsonak baitiren jendearen kezka nagusiak, gizakiak komunitatearen eta naturaren parte sentitzen dira, eta, osotasun baten parte diren aldetik, gizakien arteko eta gizakien eta naturaren arteko bizikidetzaren harmonikoa defendatzen dute.

Ongizatearen paradigma hori transmodernitate izeneko paradigma kultural edo kosmobisio bati dagokio (Hidalgo-Capitán eta Cubillo-Guevara, 2016), zeina defini baitaiteke era honetara: adostasun intersubjektiboan oinarritutako munduaren ikuspegia, adosturiko egiak bilatzen dituen, bizitzaren alderdi guztiak interpretatzen dituen fedean, arrazoian eta irudimenean oinarritutako postulatuaren konbinazio emozionalki adimentsutik abiatuta, eta horiek gauzatea bilatzen duena; eta, orobat, bilatzen dituen kulturarteko proiektu adostuak eta ikuspegi sozial eta ingurumenekotik harmonikoak, gizarte global poskapitalistaren eraikuntzara bideratuak.

Esan ohi da transgarapena tokiko eskalan, ekoherrietan edo komunitate indigena batzuetan baino ez dela bideragarria. Baieztatu ohi da, halaber, Latinoamerikako herrialde batzuetan (Ekuador, Bolivia, Nikaragua, El Salvador) porrot egin dutela nazio mailako transgarapena ezartzeko saiakerak; izan ere, herrialde horietako gobernuak politika desarrollistak ezartzen

jarraitu dute, eta herrialde horietako garapen txarrean sakondu dute. Hala ere, oraindik ere badira hainbat ahalegin eta proposamen ez diotenak uko egiten transgarapenak tokiko eremutik harago inplementatzeari. Horien artean legoke Garapen Iraunkorreko Helburuen ordezkotako agenda global baten proposamena, Ongi Bizitzearen Helburuak izenekoa (Hidalgo-Capitán et al., 2018).

Proposamen alternatibo horren arabera, 2030 Osteko Agendak lortu beharko lukeen ongizatearen paradigma transgarapen transmodernoarena izan beharko luke. Horretarako, modernitatea (kultur paradigma gisa), garapena (ongizatearen paradigma moderno gisa) eta garapen iraunkorra (garapen alternatibo modernoaren aldaera gisa) zalantzan jartzen dituen ikuspegi epistemologikoa hartu beharko litzaiteke, eta paradigma eta aldaera horietatik harago joatea proposatzen du, horiek erabat ukatu gabe, baina horiek gaindituz.

Ongi Bizitzearen Helburuak hogeita lau helburrerentzat gisa egituratzen dira (hiru orokor eta hogeita bat espezifiko), ongi bizitze globalaren (edo transgarapen globalaren) ezaugarri izan behar duten hiru harmoniak (ingurumenekoa, soziala eta pertsonala) lortzera bideratuak. Taula honetan identifikatzen eta definitzen dira hiru helburu orokorrak eta hogeita bat helburu espezifikoak, hiru harmoniek definitutako hiru ardatzetan egituratuta.

## Ongi bizitzaren helburuak maila globalean

Naturako izaki guztien arteko harmonia	Gizaki guztien arteko harmonia	Norberaren harmonia
<b>Helburu orokorrak</b>		
<b>1. Iraunkortasun biozentrikoa</b>	<b>2. Ekitate soziala</b>	<b>3. Asebetetze pertsonala</b>
Ekosistemen biodibertsitatearen galera, espezieen biodibertsitatearena eta biodibertsitate genetikoa-rena geldiaraztea, eta, aldi berean, giza aztarna ekologikoa planetaren biogaitasunera egokitzea.	Munduko biztanleen arteko, herrialdeen, eskualdeen, landa eremuen eta hiri eremuen, etnien, erlijio konfesioen, gizarte klaseen, generoen, sexu identitateen eta pertsonen arteko gaitasun eta aukera desberdintasunak murriztea, eta orobat murriztea gizarte ongizateari dagozkion desberdintasun mailak.	Pertsonak beren bizitzarekin duten asebetetze maila handitzea, dagokien lurralde testuinguruetan, eta, aldi berean, pertsonen asebetetze maila handien eta txikien arteko aldeak murriztea.
<b>Helburu espezifikokoak</b>		
<b>1.1. Ekosistemak zaintzea</b>	<b>2.1. Tokiko ekoizpena</b>	<b>3.1. Kulturartekotasuna</b>
Tokiko, eskualdeko, nazioko, nazioz gaindikoa eta munduko ekosistema urtarren eta lurtarren narriadura geldiaraztea, eta ekosistema horiek berreskuratzeko prozesuak abiaraztea, lehengoratzeko politiken bitartez, bizitzarako seguruak izango diren inguruneak garatzen laguntzeko moduan.	Eskala txikiko eta tokiko ekoizpen jardueren garapena sustatzea, hurbileko produktuetan oinarrituta, herrialdeen barruan pobrezia eta gizarte desberdintasunak murrizten laguntzeko.	Herrialde bakoitzaren baitan eta herrialdeen artean dauden nortasun etnikoak eta jardun kulturalak ezagutu, errespetatu eta sustatzea, baita mugaz haraindikoa mugikortasunerako eskubidea eta talde etnikoen bizikidetzaren harmonikoa ere, kulturartekotasunaren irizpideen arabera, kultura guztiei loratzen laguntzeko.
<b>1.2. Ekonomia iraunkorra</b>	<b>2.2. Elikadura subiranotasuna</b>	<b>3.2. Askotariko identitateak</b>
Baliabide natural gutxiago kontsumituko duten, hondakin gutxiago sortuko duten eta denbora libre gehiago emango duten ekoizpen, kontsumo eta lan sistemetara bideatzea, halako eran non hobetuko baiten pertsonen eta naturako gaitasunak izakien bizi kalitatea.	Ekoizpen eta merkataritza politikak nekazaritza, ekologia eta kultura irizpideen arabera inplementatzea, herrialdeen eta tokiko komunitateen elikadura subiranotasunerako trantsizioa egin ahal izateko.	Genero, sexu eta etnia identitate askotarikoak eta identitate fenotipikoak ezagutu eta errespetatzea, gizarte harremanak despatriarkalizatuz, desheteronormalizatuz eta deskolonizatuz, identitateagatiko gizarte bazterketak gutxitzeko.
<b>1.3. Erauzketa iraunkorra</b>	<b>2.3. Demokrazia parte-hartzailea eta baketsua</b>	<b>3.3. Hezkuntza kontestuala</b>
Baliabide natural berriztagarrien eta ez-berriztagarrien erauzketa mugatzea tokiko eremuetan, eskualdeetan, nazioetan eta mundu-mailan, eta, horretarako, eremu horietan bertan ordezko baliabide natural berriztagarriak ugaltzeko gaitasuna baldintzatzea, baliabide naturalen stock lokalak, eskualdekoak, nazionalak eta globalak nahiko egonkor mantentzea daitezke.	Pertsonen parte-hartze politikorako eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko mekanismoak gartztea tokiko, eskualdeko, nazioarte-ko eta munduko eremuetan, testuinguru sozial bakoitzera egokitutako partaidetza eta bake aniztasuna lortzeko.	Bizitza osoko alfabetatze, ikasketak eta hezkuntza motak ezagutu, errespetatu eta sustatzea, pertsonen berriarazko gaitasunen eta haien testuinguru sozialaren eta ingurumenari dagokionaren arabera, pertsona gisa errealizatu ahal izateko.

Helburu espezifikoak		
<p><b>1.4. Klimaren aldeko trantsizioak</b></p> <p>Energia iturri berriztagarrietan baino oinarriz ez diren energia sistemetarako trantsizioak jartzea abian, klima aldaketa globalaren ondorioak arintzen laguntzeko, eta orobat abian jartzea aldaketa horretara modu ez traumatikoan egokituko diren habitat, ekoizpen eta kontsumo sistemetarako trantsizioak.</p>	<p><b>2.4. Progresibotasun fiskala</b></p> <p>Sistema fiskal progresiboak ezartzea, herrialdeetako barne-merkatuetan sortutako errenta birbanatzeko, eta herrialdeen artean ongi bizitzeko laguntza ofizialeko nahitaezko konpromisoak ezartzea, nazioarteko merkatuetan sortutako errenta birbanatzeko moduan.</p>	<p><b>3.4. Bizimodu xumea</b></p> <p>Bizimodu xumearen estilo pluralak ezagutu, errespetatu eta sustatzea, pertsonak beren oinarrizko giza beharrak asetzeko aukera izan dezaten beren lurralde-testuinguruetan.</p>
<p><b>1.5. Naturaren eskubideak</b></p> <p>Naturaren Eskubideen Adierazpen Unibertsala onestea eta eskubide horiek eta herrialde bakoitzean dituzten babes mekanismoak Konstituzioaren arabera onartzea, naturaren berezko balioak kontuan har daitezkeen.</p>	<p><b>2.5. Ekonomia alternatiboak</b></p> <p>Pertsonen oinarrizko beharrak ase daitezkeen sustatzea, errenta eta aberastasun bidezkoena banatzen duten merkatuaren ordezkotza bideak erabiliz.</p>	<p><b>3.5. Espiritualtasunak</b></p> <p>Laikotasun irizpideen arabera, erlijio konfesioak eta jardun espiritualak ezagutu eta errespetatzea, baita pertsonen akonfesionaltasuna eta horiek eremu publikoan eta pribatuan garatzeko eskubidea ere, beste pertsona batzuen jardun erlijiosoak eta espiritualak baldintzatu gabe, guztiek beren espiritualtasuna askatasunez eta bete-betean garatzeko aukera izan dezaten.</p>
<p><b>1.6. Ekonomia zirkularra</b></p> <p>Ekoizpen eta kontsumo prozesuetako hondakinak kudeatzeko sistematik sustatzea, ekonomia zirkularrako irizpideen arabera, baliabide naturalak sortzeko ahalmenaren gaineko presioa eta tokiko, eskualdeko, nazioarteko, nazioz gaindikotako munduko ekosistemen hustubide gisa xurgatzeko gaitasuna murrizten laguntzeko.</p>	<p><b>2.6. Merkatuen erregulazioa</b></p> <p>Merkatu lokalak, nazionalak, nazioz gaindikotakoak eta globalak arautzea, tokiko, estatuko eta nazioarteko botere publikoen bidez, merkatu boterea eragile gutxi batzuen esku pilatu dadin saihesteko.</p>	<p><b>3.6. Nazioaniztasuna</b></p> <p>Herrialde bakoitzaren barruan edo hainbat herrialderen barruan egon daitezkeen nazionalitate eta nazioarteko Konstituzioaren arabera onartzea eta errespetatzea, baita zenbait eskumen politiko autogestioatzeko gaitasuna ere, herrien autonomia kolektiboa handitzeko.</p>
<p><b>1.7. Habitat ezin hobekak</b></p> <p>Tokiko habitaten eskala optimizatzea aglomerazio ekonomiak aprobetxatzeko eta aglomerazioko desekonomiak saihesteko, tokiko ekosistemen karga ahalmenaren gaineko presioa murriztuz.</p>	<p><b>2.7. Diskriminazio positiboa</b></p> <p>Herrialdeen barruan diskriminazio positiboko politikak ezartzea, pertsona behartsuenen jatorrizko gaitasunak eta aukerak areagotzeko, eta politika mugatzaile ekonomikoak eta sozialak ezartzea, pertsona aberatsuenen diru-sarrerak eta amaierako ongizatea murrizteko.</p>	<p><b>3.7. Erabateko osasuna</b></p> <p>Eraginkortasun zientifiko-sozialeko irizpideen arabera, medikuntza motak ezagutu, errespetatu eta sustatzea, lurralde testuinguru bakoitzean pertsonen osasuna hobetzean laguntzeko, osasuna kontzeptu holistikotzat hartuta.</p>

Iturria: Hidalgo-Capitán et al. (2018: 86-90).



Hauek dira helburu orokorrak: iraunkortasun biozentrikoa, naturako izaki guztien arteko harmonia islatuko lukeena; ekitate soziala, gizaki guztien arteko harmonia islatuko lukeena; eta asebetetze pertsonala, nor bere buruarekin duen harmonia islatuko lukeena. Hiru helburu horiek elkarri lotuta egongo lirатеke, eta, beraz, ezinezkoa litzateke ondo bizitzea hiru helburuak aldi berean beteko ez balira; hala ere, hierarkia bat egongo litzateke helburuen artean, iraunkortasun biozentrikoak ekitate soziala lortzeko bitartekoak mugatuko bailituzke, eta iraunkortasun biozentrikoak eta ekitate sozialak mugatu egingo lituzkete asebetetze pertsonala lortzeko bitartekoak. Beraz, ongi bizitze globalaren osieran, lehenik, natu-

ra hartu beharko litzateke kontuan; bigarrenik, gizartea; eta hirugarrenik, pertsona, pertsona gizartearen zati delako eta gizartea naturaren parte delako.

Helburu orokorrak lortzeko, aldi berean berariazko helburuak lortu beharko lirатеke; lehenengo hirurak ezin izango lirатеke lortu, aldi berean bigarren hogeita batak lortu gabe. Gainera, berariazko hogeita bat helburuek harreman estua izango lukete beren artean, bereziki hiru harmonietako batekin zuzeneko lotura dutenen artean. Irudi honetan, ongi bizitzearen hogeita lau helburu globalen egitura sistemikoa azaltzen da, hiru harmoniek zehaztutako hiru ardatzen inguruan egituratuta.



Irudia: Hidalgo-Capitán et al. (2018: 85).

Hauek dira naturako izaki guztien arteko harmoniarekin zerikusia duten helburu espezifikoak: ekosistemak zaintzea; ekonomia iraunkorra; erazte iraunkorra; klimaren aldeko trantsizioak; naturaren eskubideak; ekonomia zirkularra; eta habitat ezin hobek. Gizaki guztien arteko harmoniarekin lotutako helburu espezifikoak honako hauek izango lirатеke: tokiko ekoizpena; elikadura subiranotasuna; demokrazia partehartzailea eta baketsua; progresibotasun fiskala; ekonomia alternatiboak; merkatuen erregulazioa; eta diskriminazio positiboa. Eta norbere burua-

rekiko harmoniarekin lotutako helburu espezifikoak hauek dira: kulturartekotasuna; askotariko identitateak; hezkuntza kontestuala; bizimodu xumea; espiritualtasunak; nazioaniztasuna; eta erabateko osasuna.

2030 ondorengo agenda global alternatiboaren proposamen hau Huelvako Unibertsitatearen (Espainia) eta Ekuadorreko Unibertsitate Zentralaren (Ekuador) artean osatutako unibertsitate arteko lankidetzaren proiektu baten emaitza da. Proiektu hori Andaluziako Garapenerako

Hauek dira helburu orokorrak: iraunkortasun biozentrikoa, naturako izaki guztien arteko harmonia islatuko lukeena; ekitate soziala, gizaki guztien arteko harmonia islatuko lukeena; eta asebetetze pertsonala, nork bere buruarekin duen harmonia islatuko lukeena. Hiru helburu horiek elkarri lotuta egongo lirakeke, eta, beraz, ezinezkoa litzateke ondo bizitzea hiru helburuak aldi berean beteko ez balira.



Irudia: Hidalgo Capitán.

Nazioarteko Lankidetzeta Agentziak (Espainia) finantzatu du, eta gogoeta prozesu ireki eta kolektibo batean oinarrituta dago, zeinetan parte hartu baituten 30 nazionalitate desberdineko

ehun intelektual eta akademikok baino gehiagok. Gogoeta prozesu hori ideia honetatik abiatu zen: ongi bizitzea Ekuadorreko Amazonian sortu bazen XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran garapen iraunkorraren kontzeptuaren alternatiba gisa, proposamen alternatibo bat sortu beharko litzateke Garapen Jasangarriaren Helburuen proposamenaren aurrean, ongi bizitzearen kontzeptuan oinarrituta, hau da, Ongi Bizitzearen Helburu global batzuk.

Proposamen hori nazioartean zabaldu da eta Internet bidez<sup>1</sup> sarbide librea duen liburu batean (gaztelaniaz), artikulu akademikoetan (gaztelaniaz eta ingelesez) eta dibulgazioko artikuluetan (gaztelaniaz eta ingelesez) argitaratu da. Horrez gainera, nazioarteko kongresu, topaketa eta foro akademikoetan aurkeztu da, baita nazioarteko boluntarioen prestakuntza jardueretan ere (Espainian zein Ekuadorren). Proposamenak oso harrera ona izan du, kasu guztietan, eta gogoeta prozesu interesgarriak sortu ditu. Agenda horrek 2030 ondoko Agenda Globalaren diseinuan izango duen eragina, berriz, politika publikoen egile instituzionalen (*policy makers*) esparruan proposamenak lortzen duen harreraren arabera izango da, eta oraingoz eskasa izan da. Edonola ere, 2030. urterako Agenda Globala egin beharko duten erakundeetako *policy maker* horietako asko ez dira oraindik erakundeen parte, akademiako eta gizarte zibileko kide baizik. Horiengan dugu jarrita gure itxaropen osoa.

Antonio Luis Hidalgo-Capitán eta Ana Patricia Cubillo-Guevara, Huelvako Unibertsitateko Diziplinarteko Ikerketa Taldeko kideak.

## Erreferentziak

Hidalgo-Capitán, A. L. eta Cubillo-Guevara, A. P. (2016): *Transmodernidad y transdesarrollo*. Huelva: Ediciones Bonanza.

Hidalgo-Capitán, A. L., García-Álvarez, S., Cubillo-Guevara, A. P., eta Medina-Carranco, N. (2018): *Los Objetivos del Buen Vivir a escala global*. Huelva: Ediciones Bonanza.

<sup>1</sup> <https://edicionesbonanza.es/catalogo/los-objetivos-del-buen-vivir-a-escala-global>

## Ongi bizitzea, garapenaren alternatiba: Ahalmenak eta mehatxuak<sup>1</sup>



Irudia: Alberto Acosta.

**Alberto Acosta:** Ekuadorreko ekonomialaria. Unibertsitateko irakaslea; batez ere Garapenaren Teoriak gaiaren katedraduna Ekuadorreko eta atzerriko hainbat unibertsitatetan. Energia eta Meategietako Ministroa (2007), Batzar Konstituziogilearen presidentea (2007-2008), Errepublikaren Presidentetzarako hautagaia (2012-2013). Gizarte mugimenduetako borroka kidea.

19

*“Ez dut Ongi Bizitzearen ordezkari izan nahi Andeetako adierazpen indigenetan, hala nola qamaña edo sumak kawsay. Baina jarrera bat defendatzen dut, non nire interesak eta kezkak (adibidez, ingurumen eta garapenari buruzkoak) birformulatu baititzaket, suma qamaña edo sumak kawsay-ren antzeko ideiekin elkarrizketan”.*

**Eduardo Gudynas** (2013)

Ongi Bizitzeak edo *sumak kawsay* delakoak, zibilizazioa eraldatzeko gaitasuna duen proposamena den aldetik, kapitalismotik eta haren pandemietatik irteteko aukera bat planteatzen du. Hala ere, proposamen horren ahalmenak berreskuratu ahal izateko, mehatxuei aurre egin behar zaie.

Hasteko, esan dezagun Ondo Bizitzeak hainbat interpretazio izan dituela, eta ez kritika gutxi. Gai horrek konplexutasunak ditu, zalantzarik gabe. Ez dago definizio argirik, ezta eredu edo teoriarik ere. Hori, edonola ere, ez da arazo bat, duen ahalmen handienetako bat baizik. Gaiari dagokionez hurbilketa egoki bat egitean itxi egiten dira, inondik ere, ikuspegi dogmatiko edo ortodoxoetarako espazioak.

Ongi Bizitzeari buruzko eztabaida “garapena” gainditzeko urrats bat emateko aukera gisa ulertzea da, azken batean, gakoa. Jomugan Mendebaldeaz bestelako kosmobisioa dago, sustrai komunitarioetatik sortzen dena, ez

<sup>1</sup> Testu horretan laburtzen dira egileak hainbat hamarkadatan zehar gai horri buruz egindako hainbat gogoeta. Nahikoa da haren liburu hau gogoratzea: Alberto Acosta; *El Buen Vivir Sumak Kawsay, una oportunidad para imaginar otros mundos*, ICARIA, (2013).

**Ongi Bizitzeak gizakiak bere buruarekin harmonian (edo, nahi bada, "orekan") bizitzea eskatzen du, eta gizabanakoak komunitatean harmonian bizitzea.**

bakarrrik Andeetako eta Amazoniako munduan; kosmobisio horrek gatazkak eta hausturak sortzen ditu, noski. Ongi Bizitzeak zalantzan jartzen ditu kapitalaren zibilizazioaren berezko logika antropozentrikoak, eta, horren barruan, baita haren kontrako zenbait ideologia ere, nola diren gaur egun arte existitzen diren sozialismo gehienak.

Ongi Bizitzeak (Buen Vivir), Ekuadorren esaten den bezala –edo Bizitza Ona (Vivir Bien) Bolivian esan ohi den bezala–, bultzatzen gaitu aurrerakuntzaren kontzeptu tradizionalaren joera produktibista eta "garapenaren" kontzeptua, noranzko bakar gisa, desegitera. Eta balio du, halaber, bizi dugun mundu-sistema beste angelu batzuetatik ulertzeko, baita ezin bete litezkeen aurrerapen eta garapen promesak desegiteko ere: aita eta semea, modernitatearen izakiak diren aldetik.

### *Ongi Bizitzeari buruzko hainbat nahasketa argitzen*

Hasteko, ezin dira nahastu Ondo Bizitzea eta "hobeto bizitzea" kontzeptuak; izan ere, bigarren kontzeptuak aurrerapen material mugagabea dakar, bai eta modu batera edo bestera aldez aurretik ezarrita dagoen goragoko helburu bat dagoela onartzea ere: "garapena", alegia.

Egia esan, "hobeto bizitzeak" –kapitalaren metaketa ziurtatzeko motorra– besteekin lehian jardutera bultzatzen gaitu, eta gure bizitza haiekin alderatzen dugu, eta horrela onartzen dugu hobeto edo okerrago gauden. "Hobe" horrek –egunero ikusten dugu– gehiago eta gehiago ekoiztea eta kontsumitzea dakar, amaierarik gabeko metaketa prozesu batean. Gogora dezagun, batzuek "hobeto bizi" ahal izateko, milioika pertsona "gaizki bizi" izan direla eta bizi behar dutela, eta, aldi berean, Natura sakrifikatzen dela, aurrerapen/garapen desiratuaren mesedetan.

Ongi Bizitzeak, aldiz, ez du esan nahi pilaketa material esponentzial eta etengabearen prozesu hori errepikatu behar denik; desberdintasun eta indarkeria ugaritan oinarritzen da, eta, aldi berean, munduko biztanleriaren talde txikiak "hobeto bizitzeko" aukera sustatzen du. Ongi Bizitzearen bitartez, panazeatzat hartu gabe, beste aukera batzuetarako atea ere zabaltzen da. "Harmonian egotearen kultura" delakoak bultzatutako bilakaera ahalbidedetzen da, eta ez "hobeto bizitzearen zibilizazioa" (Oviedo Freire, 2011). Kontua da, hitz zehatz eta sinpleak erabiltzearen, gizarte solidario eta sostengagarriak eraikitzea, bizitza ziurtatuko duten erakundeen esparruan; bizitza duina gizakientzat, eta gizaki ez direnentzat, bide batez. Ongi Bizitzeak komunitate osoarentzat nahikoa denaren etika iradokitzen du, eta ez gizabanakoarentzat bakarrik, Naturarekiko elkarrekikotasun harremani eragin gabe.

Ongi Bizitzeak gizakiak bere buruarekin harmonian (edo, nahi bada, "orekan") bizitzea eskatzen du, eta gizabanakoak komunitatean harmonian bizitzea. Are gehiago, komunitateen artean harmonian bizitzea funtsezkoa da, herri eta nazioetara estrapolatuz. Eta guztiek, gizabanakoek zein komunitateek, beren bizitza Naturarekin harmonizatu behar dute. Baina kontzeptu bakar eta zalantzagabeari aurrea hartzeko, hobe litzateke "bizimodu onak" edo "bizikidetza onak" aipatzea. Hau da, bizikidetza ona komunitatean bizi diren gizakien artean, bizikidetza onak komunitateen artean, gizabanakoen eta komunitateen bizikidetza ona Naturan eta Naturarekin.

Bizitzaren ikuskera horrek, non erlazionaltasuna baita nagusi –dena dago denekin erlazionatuta–, elkarrekintza eta trukeen fluxu etengabea eta konplexua planteatzen du. Elkarrekikotasun, osagarritasun eta solidaritate prozesu amaigabe batean, ematea eta jasotzea izango litzateke Ondo Bizitzearen oinarria. Gizaki baten bizitza zuzendu behar duen jarrera etikoa onartzen da: nork bere burua eta gainerako bizidunak zaintzea. Eta harmonien mundu horretan bizitza beste edozein iritziren gainetik dago. Esan dezagun, konfrontazio politikoari dagokionez, Ondo Bizitzean bizitzaren ugalketak axola duela, eta ez kapitalaren ugalketak.

Beraz, Ondo Bizitzearen oinarrian dauden kontzeptuak hainbat ikuspegitik ulertu behar dira, kontzeptzioen homogeneizazioa ukatuz, horiek murriztu egiten baitituzte besteen ikuspegiak eta ulertzeko moduak. Edonola ere,

eztabaiden baitan dago komunitateko bizitza eta *Pacha Mama* (Ama Lurra) elkarren arteko erlazioan eta osagarritasunean ikustearen alderdi holistikoa. Komunitateak eta Naturak Ongi Bizitzearen proposamenak eraikitzeke oinarriak ezartzen dituzte. Gainera, mundu espiritual indigenaren printzipioak –elkarrekikotasuna, errespetua, elkartasuna, osagarritasuna, harremanak– funtsezkoak dira Ongi Bizitzean, bere *sumak kawsay* dira.

### ***Ongi Bizitzea Modernitatean barrapatuta dauden periferietatik azaleratzen da***

Ongi Bizitzeak edo *sumak kawsay* delakoak laburtu egiten ditu mundu-sistemaren periferiatzat hartzen diren herrialdeen periferietatik, hau da, “periferiaren periferietatik”, sortzen diren proposamenak. Eta ez hori bakarrik: historikoki baztertuta egon diren taldeetatik azaleratzen da, eta horrek ez du esan nahi bidean ez duenik kanpoko eraginik topatzen. Argi dago komunitate horiek ez direla homogeenak, eta Modernitateak etengabe setiatzen dituela, konkista eta kolonizazio prozesu amaigabe baten biktima izateaz gainera.

Ongi Bizitzeak bere proposamenak egiteko gaitasuna ukatu zitzaizen herri baztertuetako hiztegi propioa erabiltzen badu ere, egia da *su-*

*mak kawsay* edo Ongi Bizitzea logika konplexu batean sartuta dagoela: batzuek beren jabetze anizkoitzeko gaitasuna erabili nahi dute menderatzeko, eta beste batzuek, berriz, aldaketarako ekintzak sustatzeko palanka gisa erabili nahi dute, benetan zer esan nahi duen barneratu gabe. Ezinbestekoa da ideia horiek mundu indigenatik sortzen direla azpimarratzea behin eta berriz (azken urteotan maiz errepikatu dudana bezala: Acosta, 2005). Mundu horretan kultura idatzia ez da nagusi, eta horrek mugatu egiten du, baina ez du haren ikuspegiak berreskuratzea eragozten<sup>2</sup>. Eta, azken urteotan egiaztatu bezala, Ongi Bizitzeari buruzko interesa bizkor hazi da hainbat eremu eta eskualdetan<sup>3</sup>.

Testuinguru horretan azaleratu dira haren potentzialtasunak eta mehatxuak. Nozio sinplista gisa erabiltzea, esanahirik gabeko nozio gisa, bere jatorri indigenetatik urrun, eta are okerrago, diskurtsoaren eremua gaingitzen ez duen gobernuaren tresna politiko gisa erabiltzea da, hain zuzen, mehatxurik handiena. Benetako edukirik ez duten definizio interesdun eta moldagarriek, praktikan, ez dakite kultura tradizionaletatik nola sortzen diren. Gogora dezagun Ekuadorren, Bolivian gertatu bezala, Ongi Bizitzea botere tresna eta gobernuaren propagandarako tresna bihurtu zela. Egia esan, oihartzun handiko adierazpen batzuetatik haratago, Ekuadorren behintzat, ez zen inolako intere-

2 Hala ere, hemen –mugimendu indigenaren hainbat dokumentuz gainera, batez ere Ekuadorreko Nazionalitate Indigenen Konfederazioari dagozkionak: CONAIE (2013); *Proyecto político para la construcción del Estado Plurinacional Intercultural – Propuesta desde la visión de la CONAIE*, Quito–, ideia horiek Ekuadorren zabaltzeko garrantzizkoak izan diren ekarpen pare bat aipatzen dira: Carlos Viteri Gualinga (2000); *Visión indígena del desarrollo en la Amazonía*, Quito, (mimeo); Bolivian, Fernando Huanacuni Mamani (2010); *Vivir Bien / Buen Vivir Filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales*, Convenio Andrés Bello, Instituto Internacional de Investigación eta CAOI, La Paz. Gaiari buruzko pentsamendu indigenaren bilduma interesgarria egiten duen ekarpen bat honako hau da: Antonio Luis Hidalgo–Capitán, Alejandro Guillén García – Nancy Deleg Guazha (2014); *Antología del Pensamiento Indigenista Ecuatoriano sobre Sumak Kawsay*, Cuenca Unibertsitatea eta Huelvako Unibertsitatea. Bertan biltzen dira, besteak beste, Luis Macas, Nina Pacri, Blanca Chancoso, Arirura Kowii, Luis Maldonadoren testuak.

3 Ekarpene asko daude nahitaez ez datozenak indigenen mundutik, gogora ditzagun lan hauek: Atawallpa Oviedo Freire (2011); *Qué es el sumakawsay – Más allá del socialismo y capitalismo*, Quito; Xavier Albo (2009); “Suma qamaña = el buen convivir”. Obets aldizkaria, Alacant; Josef Estermann (2015); *Más allá de Occidente – Apuntes filosóficos sobre interculturalidad, descolonización y el Vivir Bien andino*, Abya-Yala, Quito; Eduardo Gudynas; “Buen Vivir: sobre secuestros, domesticaciones, rescates y alternativas”, hainbat egiletan; *Bifurcación del Buen Vivir y el sumakkawsay*, Ediciones SUMAK, Quito, 2014; Francois Houtart (2011); “El concepto del sumakkawsay (Buen Vivir) y su correspondencia con el bien común de la humanidad”, Ecuador Debate Aldizkaria 84. zk. CAAP, Quito; Omar Felip Giraldo; *Utopías en la era de la supervivencia – Una interpretación del Buen Vivir*, Editorial ITACA, Mexiko, 2014. Era berean, azpimarratu behar da Ongi Bizitzearen kontzeptuari buruz David Cortezek egindako ikerketa garrantzitsuak; haren ekarpen aipagarri eta berrietako bat da (2016): “SumakKawsay, Buen Vivir y Cambio Climático- Genealogías”, in *Cambio climático. Lecciones de y para Ciudades de América Latina*. Sylvie Nail (Ed.), 143-173, Kolonbiako Externado Unibertsitatea, Bogota.



Irudia: Alberto Acosta.

sik izan bizipeneko jardun haiek kolonialismo amaigabeari eta haren ondorioei erresistentzia –eta ber-existentzia– egiteko duten indarra ulertzeko eta are gutxiago garatzeko, komunitate indigena batzuen bizitzan eragina baitute nolabait. Eta ez hori bakarrik, kasu batzuetan hainbestearino banalizatu zen, ezen *New age* moda iragankor soil bat bihurtu baitzen Ongi Bizitzea edo *sumak kawsay*. Bide horretatik, Ongi Bizitzeak “garapena” abizen berria hartzeko arriskua ere badu: “ongi bizitzearen garapena”, hain zuzen ere.

Egiaztapen horrek, lehenik eta behin, baztertu egiten du mundu indigenak –oro har– konkistaren ondorioz sufritu ez duenik, gaur egungo garai errepublikanoetaraino proiektatzen den gau kolonialaren berezko esplotazio eta erreprezio prozesua den aldetik. Eragin koloniala eta kapitalista era askotara agertzen da mundu horretan, eta horrek behartzen du errealitate horrekiko hurbilketa erromantikoak alde batera uztera. Indigenen segmentu gero eta handiagoak xurgatu ditu merkatu kapitalistaren monetarizazioaren logikak edo beste modu askotara akulturizatu dira. Eta, bide batez, landa eremutik hirirako migrazioa sakontzen ari den heinean, sakondu egin da hiriko populazio indigenen

deserrotzea; izan ere, populazio indigena horiek beren komunitate tradizionaletatik urruntzen ari dira pixkana; hala ere, oraindik “komunitate arrastoak” daude hainbat hiri espaziotan.

Kontua, ikusten dugunez, ez da sinplea. Mundu indigenetatik datozen bizipenak direnez –kontzeptuak baino gehiago–, konplexutasun inplizitua dago garrantzizko gaietan, esate baterako Ongi Bizitzearen itzulpenean. Ongi Bizitzearen adierazpenik ezagunenek Latinoamerikako hizkuntza indigenetan dauden kontzeptuetara bidaltzen gaituzte, tradizionalki baztertuak izan direnak, baina desagertu gabeak: *sumak kawsay* edo *allí kawsay* (kitxuaz), *suma qamaña* (aymaraz), *ñande reko* edo *tekó porá* (guaranieraz), *pénker pujústin* (shuarreraz), *shiir waras* (ashuareraz), beste askoren artean. Eta ikuskera horiek guztiak ez badira ere nahitaez berdinak, are gutxiago izango da horien itzulpena gaztelania-ra, konkistaren eta kolonizazioaren hizkuntza baita. Berez, herri eta kultura aniztasun handi hori onartzen denean desegin egiten da “indigena” terminoak ezkututzen duen tresneria, hori ere koloniala jatorriz.

Errealitate horretatik abiatuta, esan izan da *sumak kawsay* ezin dela inolako hizkuntzatara

itzuli, bere espiritua deformatuko bailitzateke eta bere ahalmen eraldatzailea galduko bailuke. Kontu hori ez da txantxetako. Ezin dugu ezkutatatu minaz beteriko eremua dela, dakartzan arriskuengatik.

Hemen, espazio arrazoiak direla-eta xehetasunetan sartu gabe, Ongi Bizitza kontzeptu ireki gisa hartzeko aukera berreskuratzen dugu, haren sustrai indigena sakonak aitortuz, eta hortik beste mundu batzuk eraiki ditzakegu, ateak itxi gabe beste jakintza eta ezagutza batzuekiko eztabaida eta elkarrizketa zabal eta aberasgarri bati. Puntu honetan eztabaida postdesarrollistak eta beste batzuk txerta daitezke, hala nola desazkundekoak (hazkunde ekonomikoaren erlijioa esan dakiokenetik abiatuta eraikitako gizarteak zalantzan jartzen dituztenak); Modernitatea gainditzera bideratutako eztabaidak.

Baina esan beharra dago, Ongi Bizitzaekin eta harmonia anitzen ikuspegiarekin ez dela planteatzen aukera milenarista bat, gatazkarik gabea. Nabarmendu nahi dena da Ongi Bizitzaekin harmoniak eta orekek orientatutako gizarte bat proposatzen dela, gatazkak larrituko ez dituen, liberalismo ekonomikoaren ikuspegiarekin gertatzen ez den bezala, zeinak oinarrituak baitira lehian eta gizabanakoen metaketan, elkarren aurka jardunez.

### *Garrantzizkoena da zer den, eta ez zer nahi den...*

Arestian azaldutakoak esan nahi du behar bezala baloratu behar direla antzinakotzat jotzen diren jakintzak, haien antzinakotasuna definitzea konplexua dela onartuz. Horretarako, zubi bat eraiki behar da, jakintzak eta ezagutzak errespetuz erlazionatzeko. Eta horrek, besteak beste, teknologiak, zientzia, ezagutza eta abar biziaren zerbitzura jartzera bultzatzen gaitu, eta, azken batean, kapitalaren metaketa bultzatzen duten ikuspegiaren zerbitzura.

Lan konplexua da hori. Hurbilketa horiek eten egin behar dituzte atzeratze eurozentrikoak –akademiaren munduan are gehiago errotuta–, Modernitatearen epistemologiatatik askatzeko joera izan behar dute, zeina zalantzan jartzen baitute Ongi Bizitzaek edo *sumak kausay* delakoaren narratibarik sakonek. Ildo horretatik, galdetu behar da zein den Ongi Bizitzaaren nozioen formulazio garaikidean parte hartu zuten eta parte hartzen duten

**Lan konplexua da hori. Hurbilketa horiek eten egin behar dituzte atzeratze eurozentrikoak –akademiaren munduan are gehiago errotuta–.**

diskurtso eta eragile sozialen sare konplexuaren esparruan sortu zen jakintza eta botere erregimena. Horretarako garapen konbentzionalaren diskurtsoa kritikatu, alternatibak bilatu eta hura gainditzeko jarduna azaltzen duen prozesu historikoa ulertu behar da, zeinak laburtzen baituen kontzeptu horren eraldetarako benetako ahalmena. Azterketarako, beraz, kontzeptuaren larrialdi historikoa hartu behar da kontuan, erresistentziarako eta kontraerasorako estrategien ugaritasunaren barruan sartuta, bai eta alternatiben eraikuntza zehatzaren barruan ere: ber-existentzia.

Argi dago eztabaida honetan bi indar nagusi daudela: garapena, garapen alternatibekin, eta Ondo Bizitza, garapenaren alternatibekin. Eztabaida horrek –lehenago beste eremu batzuetan planteatuak– indar handia hartu zuen Ekuador eta Bolivian Ongi Bizitzaaren tesiak eratzeko debatean, zeinak ez baitziren kontuan hartu edo argi eta garbi kontra egin baitzitzaizen gizarte zuri-mestizoan eta oso gutxi ezagutu baitziren mundu indigenako segmentu handietan. Eta harat-honat ibiltze horretan ugariak izan dira Ongi Bizitza garapenaren esparruan azken helmuga bakar gisa exekotzeko saiakerak, eta orobat ugariak izan dira Ongi Bizitzaaren hainbat tesi “ekonomia berde” deiturikoan modu trebean eta testuingururik gabean txertatzeko saiakerak, zeinaren bitartez oxigenatu nahi baita kapitalismoa.

Baina oztopo gehiago ere badaude. Ongi Bizitza ilusioetan edo utopia pertsonaletan oinarritutako ikuspegi “teorikoetatik” abiatuta dogmatizatu eta irudikatuz gero, kolonizatzaile bihurtu daitezkeen eldarnio zibilizatzaileak berregin ditzakete azken buruan. Gustatu ala ez, Modernitateak begiratuta pentsa ditzakegun alternatibek ere gaur egun bizi dugun gizartearen mugak dituzte. Ongi Bizitza muker bihurtu daiteke gaizki sortua badago, esate baterako Ekuador eta Boliviako gobernu “progresisten” gobernu jardunean gertatu zen bezala.

Bide batez, Andeetako gobernu “aurrerakoen” inkongruentzien zerrendak, bai maila nazionalen, bai lurralde deszentralizatueta, adierazten du zer alde dagoen agintaritzaren konstituzionalen eta *realpolitik* delakoaren asmoen artean. Praktikan, kontsumismoaren eta produktibismoaren forma kontinuitateak –desarrollismoa, azken batean– antzematen dira, eta orobat islatzen dute Ongi Bizitzaren terminoaren erabilera propagandistikoak. Nahikoa da ikustea Ekuadorren eta Bolivian Ongi Bizitzaren iragarritzen zuten dokumentu eta programa ofizialen kopurua, gobernu bakoitzaren publizitate eredu ofizialean txertatuak, baina kontzeptuak benetan adierazten duenetik guztiz urrun. Adibidez, kaleak hobetzeko udalaren proiektuak, automobilaren inguruan eta ez gizakien kulturaren inguruan eraikitako hirietan, “Ongi Bizitzaren bultzatzeko lan” gisa aurkeztu ziren. Funtsean post-kapitalista den bizipen baten erabateko banalizazioa inondik ere.

Egoerak zantzu aberranteak<sup>4</sup> ere hartu zituen, adibidez, megameatzaritzarekin estraktibismoan sakontzen zen, modu lotsagarrian “Ongi Bizitzaren meatzaritza” gisara aurkeztu zenean –Ekuadorreko erregimen “progresistan” gertatu bezala–; antzeko zerbait gertatzen zen petrolioarekin eta beste estraktibismo modu batzuekin. Horrek guztiak Ongi Bizitzaren propagandistiko eta burokratizatu bat adierazten du, edukirik gabea, terminoa-produktura mugatua. Mehatxagarria da politika ofizialaren marketinaren ondoriozko ikuspegi sinple eta murriztaile hori. Eta are gehiago, Ongi Bizitzaren ofizial hori gobernu kaudillistikak sendotzeko tresna bat bada, aurretik dauden aukera komunitarioak desegitera iritsi nahi baitute. Ekintza horiek, berez gertatu bezala, gizartearen aurrean Ongi Bizitzaren legitimitatea galtzea eragin dezake.

Beste puntu bat gogoeta ildo berean. Ongi Bizitzaren definizioz, desarrollista dela eta *sumak kawsay*, ondorioz, indigena dela adieraztea sinplifikazio bat da, eztabaidarako lagungarria ez dena. Nola ekidin gobernuak *sumak kawsay* terminoa erabiltzea eta berriro ere banalizatzea? Gainera, bereizketa eta banaketa horrek mundu

4 Era berean zakarrak dira –estraktibismoak direnari buruzko ezjakintasunetik abiatuta– Ongi Bizitzaren eta *sumak kawsay* bereizi nahi dituzten ondorioak, adieraziz lehenengo kasuan ez litzatekeela inolako estraktibismo motarik onartuko, eta bigarrenean, aldiz, onartuko litzatekeela.

estu batean gordeko litzateke indigenen proposamenak eta bere ahalmen propio eta eratorriak minimizatuko lirateke, Modernitatea gainditzeko borroka kontzeptual eta politiko bat egiteko. Asmo horiek ere baztertzailak dira (edo izan daitezke), periferikoak eta Modernitateak baztertuak diren beste gizarte talde batzuen ekarpenak ukatzen badira, eta horrek mugatu egingo luke Ongi Bizitzaren izan dezakeen ahalmen mobilizatzaile zabala, inola ere ezin baita agindu global bakar eta eztabaidaezintzat hartu; horregatik, hobe da beti pluralean irakurtzea, ongi bizitzaren, alegia.

Are gehiago, esan bezala, Ongi Bizitzari abizenak jar geniezaioke (Ongi Bizitzaren iraunkorra, Ongi Bizitzaren genero-berdintasunarekin, Ongi Bizitzaren endogenoa, Ongi Bizitzaren gizatiarra, Ongi Bizitzaren “garatua”, Ongi Bizitzaren kapitalista, Ongi Bizitzaren globala?), “garapenarekin” egin bezala, deseroso egiten gintuenetik bereizi nahi izan genuenean. Era horretara zera lortuko litzateke: ikuspegi horiek birkokatzea eta Mendebaldeko arauaren munduan ahalmen eraldatzailea duten praktikak barne hartzea.

Sinkretismoa ere arriskutsua da, bizitza aukera berriak baino gehiago balio ez duten hibridoak eraiki baititzake. Alemanian, adibidez, Angela Merkelen gobernuak, mende honetako bigarren hamarkadaren erdialdean, kanpaina bat bultzatu zuen Ongi Bizitzari buruz (*Gutes Leben*<sup>5</sup>) eztabaidatzeko; eta ongizate estatua berritzeko ikuspegi eta hurbilketen entelekia nahasgarri bat sortu zen, batez ere herrialde horrek gaur egungo bizimoduari eutsi nahi baitzion, Modernitatearen arauen arabera: ekoizpen gehiago eta kontsumo gehiago, gero eta hobeto bizitzeko<sup>6</sup>.

Bide batez, badira beste puntu konplexu batzuk ere; izan ere, talde batzuek Ongi Bizitzaren eska lezakete, dagokion esentzia indigenarik gabe, beren lurraldeetan “Ongi Bizitzaren” (Muraca, 2014) babesteko aukera gisa edo, are gehiago, hura bermatzeko, bere eragin eremuak zabalduz: zoritxarrez ospetsua egin den “bizi espazioa”.

5 “Die Regierung sucht das gute Leben”, Süddeutsche Zeitung, 13.4.2015 <http://www.sueddeutsche.de/politik/buergerdialog-die-regierung-sucht-das-gute-leben-1.2433160>

6 Alemanian eztabaida ugari dago Ongi Bizitzari buruz hainbat esparrutan, hain da horrela non Koloniako hirian (Köln) egun bat ezarri zen urtean “ongi bizitzaren” eguna zeritzona, beste bizitza estilo bati buruzko premiaz gogoeta egiteko.



Ezinbestekoa da Ongi Bizitzea dela-eta ohikoa den beste gaizki-ulertu bat argitzea, iraganera itzultzeko edo mistizismo indigenistako asmo huts gisa mespretxatzen edo minimizatzen duena (arriku ezkutua, gainerakoan). Ongi Bizitzeak une honetan bertan martxan dauden eraikuntzak adierazten ditu, non elkar eragiten baituten, nahasten baitiren eta hibridatzen baitiren jakintzak eta sentsibilitateak, guztiek antzeko esparruak partekatuz, hala nola “garapenari” kritika egitea edo *Pacha Mamarekin* beste harreman maila bat bilatzea, Naturaren Eskubideak izenez ezagutzen denaren esparruan.

Laburbildu berri dugunez, mehatxuak eta arriskuak saihestezinak dira, hausturak planteatzen dituzten ideia horiei egindako ongietorriak bezainbeste<sup>7</sup>. Jarrera dogmatikoak eta intoleranteak ukatu behar dira. Ezin da existitu Ongi Bizitzearen “komisario politikorik”. Eta are gutxiago sinetsi Ongi Bizitzearen edo *sumak kawsay* delakoaren bidez arazoak konponduko direnik. Hortaz, Ongi Bizitzea eslogan politiko soil gisa erabiltzeak kontzeptua ahultzea ekar dezake, baldin eta argitzen ez bada benetan zer adierazten duen zibilizazio aldaketaren proposamen horrek.

Laburbilduz, aniztasunarekiko errespeturik ezak hainbat errealitateatik egindako proposamen anitzen benetako aberastasuna geldiaraziko luke. Ongi ala gaizki, Ongi Bizitzearen bitartez Modernitatean hazitako askok “garapenaren ordezkotza” ikuspegi bat eskuratu ahal izan dute.

### *Ongi Bizitzea Modernitateatik haratago...*

Zeregin hori betetzeko, bereziki funtsezkoa da zalantzan jartzea “garapenaren” ideiatik sortutako prozesuaren zentzu historikoa. Eraitsi egin behar dira Modernitateak guztiontzat agindutako ongizatea, bai aurrerapenaren bidez, bai garapenaren bidez, lortzeko –alferrik– baliatu

7 Adibide gisa Ongi Bizitzeari buruz egindako kritika pare bat aipatu ohi dira askotan: José Sánchez Parga; “Discursos retroevolucionarios: *sumak kawsay*, derechos de la naturaleza y otros pachamamismos” eta Mancilla, Felipe (2011); “Ideologías oficiales sobre el medio ambiente en Bolivia y aspectos problemáticos”, Ecuador Debate Aldizkaria 84. zk. (2011), CAAP, Quito, helbide honetan eskuragarri <https://repositorio.flacsoandes.edu.ec/handle/10469/3508>. Bestalde, gomendagarria da Gudynak (2013) bi ikuspegi positibista eta kontserbadore horiei emandako erantzuna.



Irudia: Alberto Acosta.

diren helburuak, politikak eta tresnak. Are gehiago, aitortu behar da jada ez dutela balio garapena aztertzeke eskuragarri dauden kontzeptuek eta tresnek. Onartu behar da ezagutza eta eztabaida horiek –kritikaren bidez ere askotan– sinestarazi nahi digutela naturala eta saihetsezina dela garapenarekin eta aurrerapenarekin lotutako eredu zibilizatzailea.

Horrexegatik, Ongi Bizitzea ezin da aztertu azterketa tradizionalaren tresnen eta logiken bitartez. Hori da Ongi Bizitzearen existentzia ukatzeko erabilitako beste argudioetako bat, ezin azaldu edo neurtu delako tresna horiekin, edo mundu indigenan komunitarioa desagertu dela onartzen delako... arrazismo intelektuala- ren beste modu bat litzateke hori. Hemen *sui generis* kritikak agertzen dira: batzuek Ongi Bizitzea kritikatzeko dute, jada gaudituta dauden antzinako gizartearen ikuspegiak izango liraketeelako, praktikotasunik gabekoak barne, edo ez direlako behar bezain benetakoak, funtsean kultura indigena horietatik ez datozelako, Modernitateari egindako beste kritika batzuek eraginak izan direlako. Era batera edo bestera, Eduardo Gudynasek idatzi zuen bezala, jarrera nagusietatik sortutako kritikak dira, eztabaidari atea itxi nahi diotenak eta, are gehiago, proposamen eraldatzaile horiek martxan jarri edo, besterik gabe, Modernitatearen kanonen barruan otzandu nahi dituztenak. Aurrekoa gaitzesgarria bada, are okerragoa da hartzea Ongi Bizitzeari buruzko gogoeta horiek, asmo ona edukita ere, ezin eztabaida daitezkeen edo edozein unetan eta tokitan aplikatu daitezkeen errezetatzat.

Antzeko zerbait gerta liteke Ongi Bizitzearen ustezko globaltasun uniformizatzaile bati atea

**Ongi Bizitza ezin da aztertu azterketa  
tradizionalaren tresnen eta logiken  
bitartez.**

irekitzen bazaio, haren potentzial globala lurralde eta komunitate espezifikotako aukera zehatzen eta ekintza erradikalen aniztasunetik sortzen baita. Hala ere, egiaztapen horrek ez du ukatzen Ongi Bizitza edo Ongi Bizitzaek hainbat eremu eta espaziotan –irismen orokorrekoak barne– eraikitze erreferentziatzko ardatz batzuk identifikatzeko aukera, hala nola lehen aipatuak: giza komunitatea eta komunitate natural harmonizatua, gizakiei eta gizakirik gabekoei bizitza duina emateko, oinarritzko erreferentzia gisa, elkarrekikotasunean eta solidaritatean inspiratzen diren gizarte berezko espiritualtasun harremanen esparruan. Horrek esan nahiko luke bizitzaren adierazpenek jardun komunitarioen bidez bideratu beharko lirakeela, eta ez bakarrik jardun indibidualisten bidez, pluraltasunean eta aniztasunean oinarritutako proposamenetatik abiatuta, eta ez dimentsio bakarreko edo kultura bakarreko proposamenetatik abiatuta. Eremu horretan, mundu berrietan pentsatzen has gitezke, Giza Eskubideak eta Naturaren Eskubideak indarrean jarrita; izan ere, horiek, berez dituzten mugak gorabehera, justizia soziala justizia ekologikoaren eskutik etortzeko beharra onartzera garamatzate, eta alderantziz.


Laburbilduz, Ongi Bizitza proposamen zibilizatzaile bat da, kapitalismotik, zibilizazio nagusitik, irteteko aukera eskaintzen duena. Hala ere, onartu beharra dago ikuspegi indigena ez dela Ongi Bizitzaaren aldeko inspirazio bakarra. Alternatiba zibilizatzaileen (ber)eraikuntza hori beste printzipio filosofiko batzuetan ere oinarritu daiteke, eta horietako batzuk *aggionar* (berritu) daitezke, baldin eta hurbilketa horiek ikuspegi antropozentriko nagusiak gainditzen badituzte eta onartzen badute bizitza duina izaki guztientzat behar dela edo, bestela, ez dela halakorik.

## **Bibliografia**

- Acosta, Alberto (2005); **Desarrollo Global – Con la Amazonía en la mira**, Corporación Editora Nacional, Quito, helbide honetan eskuragarri <https://es.scribd.com/document/358312571/Acosta-Alberto-Desarrollo-Glocal>
- Gudynas, Eduardo (2013): “El malestar Moderno con el Buen Vivir: Reacciones y resistencias frente a una alternativa al desarrollo”, Ecuador aldizkaria 88. zk., CAAP, Quito, helbide honetan eskuragarria <https://repositorio.flacsoandes.edu.ec/handle/10469/5411>
- Gudynas, Eduardo (2014): “Buen Vivir: sobre secuestros, domesticaciones, rescates y alternativas”, **Bifurcación del Buen Vivir y el sumak kawsay** liburuan, Ediciones SUMAK, Quito.
- Muraca, Barbara (2014): **Gut leben. Eine Gesellschaft jenseits des Wachstums**, Wagenbach, Berlin.
- Oviedo Freire, Atawallpa (2014): “Ruptura de dos paradigmas – Una lectura de la Izquierda desde la Filosofía Tetrádica Andina”, **Bifurcación del Buen Vivir y el sumak kawsay** liburuan, Ediciones SUMAK, Quito.

## Feminismo dekolonialak eta garapena

**Rosalba Icaza:** Aktibista feminista dekoloniala, jatorriz mexikarra; biziraulea, ama eta herri hezitzailea. Politika Globala, Generoa eta Aniztasuna arloko Irakaslea eta Ikerlari Titularra Rotterdameko Erasmus Unibertsitateko Ikasketa Sozialen Institutuan (Herbehereak). Han zuzendaria da Aniztasun eta Inklusio Taldean, eta irakurketa eta desikaskuntza dekolonialen taldea biltzeaz arduratzen da. Red Transnacional Otros Saberesekeo (RETOS) kide da eta Unitierra Lurraren Unibertsitatearekin lan egiten du.



Irudia: Rosalba Icaza.

### *Nondik hitz egiten dugu?*

Gure abiapuntuetatik hasia garrantzitsua da, lehen urratsa baita gure enuntziario lekua kokatzeko. *Patriarkatu kolonialak desegiten. Bizitza eta borroka bideak* testuan<sup>1</sup> Xóchitl Leyva antropologo mexikarrak honako hau azaltzen digu: “Aukeratzen ditugun abiapuntuek eragin handia dute, eta eragin hori ez da soilik sinbolikoa [diskurtsiboa], zehatza

eta praktikoa ere bada egiten, pentsatzen eta sentitzen dugun horretan, baina orobat praktikoa da egiten, pentsatzen eta sentitzen dugun moduan. Abiapuntuak enuntziario lekuarekin gurutzatzen dira, baina ezin dira horretara mugatu” (Leyva, 2019: 53).

2008. urteaz geroztik, akademiko/ekintzaile indigenen, afrikar ondorengoen eta mestizoen talde bateko kide naiz, eta ikerketa kolaboratiboak eta idazketa eta ikaskuntza kolektiboko praktikak egiten ditut haiekin. Lurra, bizitza eta emakumeen itxaropena suntsitzen dituzten forma bortitz eta boteretsuen aurkako erresistentzia egiten duten komunitateek elkarrekin sortzen dituzten ezagutzetara hurbildu gara *Abya Yala*-n

<sup>1</sup> Aipamena Ingelesetik egindako itzulpen libre da, eta testu honetan agertzen da: Xóchitl Leyva “Undoing Colonial Patriarchies. Life and Struggle Pathways” in Rosalba Icaza et. al. 2019. Kortxete artean dagoena nire kontua da, eta Leyvak kontuan hartzeraz bultzatzen gaituen enuntziario lekuaren materialtasuna nabarmentzeko egin dut.

**Onartzen dela garapenak —parte hartzailea, sostengarria, berdea edo alternatiboa izanda ere— ezin duela ukatu lehen batean hura ahalbidetzen duten bazterkeria, indarkeria eta kargugabetze moduetan duen inplikazio konplexua.**

(Amerikak). Red Transnacional Otros Saberes (RETOS) izena jarri diogu geure buruari<sup>2</sup>.

Gure aurkikuntzak Liburutetan dokumentatu eta zabaldu ditugu (adibidez, Icaza eta Leyva 2019), argitalpen akademikoetan (adibidez, Icaza 2018, Leyva 2019) eta (des)ikasitakoa Mesoamerikan barrena egindako bira ibiltarien bitartez partekatu dugu. Era horretakoa da Erdialdeko Amerikako eta Mexikoko hegoaldeko Emakume Indigena, Beltz eta Nekazarietzat Prestakuntza Eskola Mesoamerikarra<sup>3</sup>. Berrikiago, argitaletxe autonomo ez komertzial bat jarri dugu abian, “Editorial RETOS” izenekoa<sup>4</sup>. Elkarrekin gogoeta egin dugu ibaien, mendien eta lurraldearen babes kolektiboan sortzen diren ikaskuntzei eta desikaskuntzei buruz.

Gutako batzuek, oin bat akademian eta bestea handik kanpo dugunok, Lurrarekin dugun harremanari buruz ikasteko eta irakasteko desikasi egin behar izan ditugu gure subjektibitate mo-

derno/kolonialak, lan egiteko moduak eta ikas-teak esan nahi duenari buruzko usteak. Gutako batzuek jadanik ez ditugu ziurtzat jotzen, aitzitik, zalantzan jartzen ditugu, munduari buruzko gure ulermena antolatzen duten kategorien mugak eta indarkeria, esaterako “emakumeak”, “identitatea” eta, nola ez, “generoa” eta “ikerketa”. Zorionez, ikaskuntza eta desikaskuntza prozesuek Unitierra Lurraren Unibertsitatea (Oaxaca, Mexikoko hegoaldean) osatzen duen komunitatean forma hartu eta babestu dituzte<sup>5</sup>.

Unitierra Oaxacako erdialdeko haranetako eta Chiapasko lurralde autonomo zapatistetako komunitate indigenen unibertsitatea da. Baina Unitierra “oso bestelako” unibertsitate bat da, eskolatu gabeko eta desprofesionalizatutako ikastetxea baita, bizikidetzaren ikaskuntzara bideratua. Beraz, Unitierran ez daude irakasleak edo lanbideak edo “diziplina diziplinatuak”, elkarbizitza baizik, jardun politikotzat hartua.

Unitierran, zapotekoa, mixea eta maia hitz egiten dira, eta horien aldaerak. Gaztelania, nire ama hizkuntza eta hizkuntza koloniala, han hitz egiten diren hizkuntza guztien artean beste bat besterik ez da. Hain zuzen ere, testu honen ideia batzuk Unitierrako topaketetan sortu ziren, honako galdera hau barne: *Garapenak erantzun al diezairoke lurraren eta “besteen” bizitzaren sufrimenduarekin eta kontsumoarekin estrukturalki inplikaturik ez dagoen bizitza baten aukerari?*<sup>6</sup>

## *Modernotasuna/Kolonialtasuna*

Nolatan ematen diogu zentzua modernitateak kolonialitatea eta espezifikoki generoaren kolonialtasuna bizitzen dugun eta *sentipentsatzen*<sup>7</sup> du-

2 Red Transnacional Otros Saberesen webgunera lotura honen bitartez sar daiteke: [www.encuentroredtoschiapas.jkopkutik.org](http://www.encuentroredtoschiapas.jkopkutik.org)

3 ‘Eskolak’ 2018ko abuztuan egin zuen lehenengo Topaketa. Hondurasen izan zen, garifunek nar-kotrafikoari eta afrikar palmondoaren sailei berreskuratutako lurraldean. 4 ardatz landu ziren Eskolan: espirituala, autonomikoa, elikadurari dagokiona eta ikus-entzunezkoa, hortik abiatuta Mexikoko hegoaldeko eta Erdialdeko Amerikako 40 emakumeren taldea hornitzeko. CLACPI, PVI-FS eta OFRANEHek deitu zuten Eskola. Ikusi: [www.youtube.com/watch?time\\_continue=3&v=Bk9OAJm9is&feature=emb\\_logo](http://www.youtube.com/watch?time_continue=3&v=Bk9OAJm9is&feature=emb_logo)

4 RETOS Kooperatiba Editorial Autonomoaren Facebookera lotura honen bitartez sar daiteke: <https://www.facebook.com/EditorialRetos/> Retos Kooperatiba Editorial Autonomoaren blogera eta kosturik gabeko argitalpen guztietara esteka honen bitartez sar daiteke: <https://editorialretos.wordpress.com/>

5 Unitierra Oaxacaren webgunean lotura honen bitartez sar daiteke <https://unitierraoax.org/en/>

6 Garapenaren kolonialtasunari buruz agertutako aurretiko bertsioak eta ingelesezkoak Rolando Vázquezekin garatu eta argitaratu dira, gure ikerketa kolaboratiboaren agendaren barruan, gai hauen inguruan: Nazioarteko Harremanak, Erresistentzia transnazional moduak eta feminismo dekoloniala (Icaza eta Vázquez, 2017; Icaza eta Vázquez, 2016).

7 Sentipentsatzea hark ondorioz dakarrenetik abiatuta ulertzen dugu: alde batetik, gorputzagooa bereizketa eta gorputzaren ideia kartesiarra desmuntatzen du; baina, horrez gainera, praxis gisa azaltzen dizkigu ezagunak ditugun forma pluralak (Méndez Torres et. al., 2013).

**Modernitatea, hortaz, boterearen mugimendu historikoa da, erreala izendatzen eta irudikatzen duena; horrela, bere egiten ditu esanahi anitzeko munduak.**

gun moduari? Utz iezadazue pentsamendu dekolonialaren oinarriko proposamenarekin hasten: “Ez dago modernitatearik kolonialitatearik gabe”. Modernitateari/Kolonialitateari buruzko lehen idatziek binomio eratzaile/banaezintzat hartu zuten hura, eta kudeaketa logikak egituratu zituzten, zeinak jarduten baituten topaketa kolonialetik hasi eta gaur egun arte, ekonomia, autoritatea (gobernua, politika), ezagutza eta subjektibotasunak, generoa eta sexualitatea kontrolatuz (Mignolo 2013, Quijano 2000).

Baina, zer esan nahi du horrek guztiak Europan bizi garenontzat eta bizitzaren sostengurako garapenaren mugak seinatu eta ulertu nahi ditugunontzat? Lehenik eta behin, esan nahi du onartzen dela garapenak –parte hartzailea, sostengarria, berdea edo alternatiboa izanda ere– ezin duela ukatu lehen batean hura ahalbidetzen duten bazterkeria, indarkeria eta kargugabetze moduetan duen inplikazio konplexua. Hitz gutxitan: ez dago garapenik kolonialitatearik gabe.

Puntu honetan garrantzitsua da azpimarratzea kolonialitatea ez dela kolonialismoa. Kolonialismoak, gobernu forma historikoa den aldetik, independentzia politiko formarekin amaitu zuen zenbait testuingurutan. Kolonialitateak, bestalde, jarraitu egiten du, eta modernitateak ikusezin gisa sortu duena eta dena izendatzeko aukera ematen digu. Ezabatze hori posizio edo abiapuntu bat da, zeinetatik pentsatzen-bizitzen-eusten-interpelatzen baitzaion garapen modernoari.

Aurrekoa kontuan hartuz gero, kontraste handia ezartzen da Mendebaldeko tradizio filosofiko modernoan (euro)zentratutako pentsamenduari, non modernitatea, bere ikuspegi guztietan (hau da, amaitu gabeko modernitatea, modernitate pluralak eta hibridoak, posmodernitateak, globalizazioa, kapitalismoak, etab.) errealitate osotat hartzen baita: “*pentsamendu dekolonialarentzat, modernitateak (bere modernotasunekin) ezin du errealitate historiko osoa hartu. Badago zer bait kanpoan, modernitateetik haratagoko zer bait, bestelako moduak daudelako munduarekin erlazionatzeko, bestelako moduak sentitzeko, jarduteko eta pentsatzeko, beste geo-genealogia batzuetatik*

*datozen bizitzeko eta munduan egoteko moduak, ez Mendebaldekoak eta ez modernoak*” (Vázquez, 2014: 173), ukatuak, isilduak eta ezabatuak izan direnak, modu bortitzean askotan.

Nola egiten da ezabaketa eta indarkeria hori garapen modernoaren bidez? Zein dira prozesu horren dinamika eta egitura konplexuak eta nola gaude horietan inplikaturatuta?

### *Modernitatea/Kolonialitatea Mugimendu gisa*

Modernitateari/kolonialitateari buruzko lehen idazkietan modernitatea/kolonialitatea botere nagusia zela eta ekonomia, autoritatea (gobernua, politika), ezagutza, subjektibotasunak, generoa eta sexualitatea kontrolatzen zituela adierazi zuten. Baina berrikiago ulertu da modernitateak/kolonialitateak munduaren errealitate historikoari buruzko bi mugimendu desberdin adierazten dituztela (Vázquez, 2014).

Modernitatea, hortaz, boterearen mugimendu historikoa da, erreala izendatzen eta irudikatzen duena; horrela, bere egiten ditu esanahi anitzeko munduak. Adibidez, europar ez zirenei “zibilizatugabe” esan zieten topaketa kolonialean, eta 1950eko hamarkadatik aurrera herrialde multzo bati “azpigaratu” esan zitzaion (Icaza eta Vázquez, 2016). Gaur egun, ‘beste’ ordezteko pribilegioa arazorik gabe onartzen duten ikasleak gainbegiratzen ditut, aipatzen dudana bote-rea adieraziz.

Bien bitartean, “giza arrazionaltasuna” esaten denetik kanpo edo albora dauden ezagutza-bizitza sistemak ezabatzeko mugimendua da kolonialitatea. Hala da, esaterako, ibaiak, lurrak eta lurraldeak duten harreman sakratua jatorriz mesoamerikarrak diren herri askorentzat eta haien ondorengoentzat hiriguneetan, edo gorputza-lurra-lurraldea harremana Mesoamerikako herrietako emakumeentzat (Cabnal 2019).

### *Feminismo kritikoak eta generoaren kolonialitatea*<sup>8</sup>

Gaur egun ezin da ukatu Mendebaldeko pentsamendu filosofiko modernoan oinarritutako feminismo kritikoek arrakasta izan dutela genero-kategoria aintzat hartu dutenean, baina

8 Ideia horien aurretiko bertsioa dago Icaza 2019an eta, laster, Icaza eta Vázquez-en.

**Nork pentsatzen du zein gorputzek duten generoaren esparrua ekintza performatibo gisa eta zein diren ikuspegi horretan ezabatutako gorputzak? Zer gertatzen da gorputza Mendebaldeko feminismo antiesentzialistaren bestelako genealogia eta jardunen bitartez sentipentsatzen denean?**

ez gertaera biologiko gisa, baizik eta gorputzen inguruan eta gorputzetan dabilzan hainbat botere harreman historiko gisa.

Mendebaldeko tradizio filosofikoaren ikuspegi feminista kritikoen ekarpenetako bat izan da esentzialismoak zalantzan jartzearen ondorioz pentsamendu bitarraren baitako botere eragiketa asko eta konplexuak jarri dituela agerian. Hori da Judith Butler filosofo feministaren kasua; izan ere, harentzat generoa performatiboa da, hau da, aldea eragiten duten diskurtso ekintza errepikakorrak.

Butlerren ikuspegitik, generoa eragiten duen hizkuntza bat da, baina baita subjektuarengan eragiten duena ere, eta, horren bitartez, subjektuak jarduten duen ekintza-eremua (gain) mugatzen du. Kasu honetan, generoaren izendapena subjektuak "hautatzeko" ahalmenaren aurrekoa da, eta bere aukerak emandako genero arau horien barruan daude beti (Icaza eta Vázquez, laster).

Zalantzan jartze hori garrantzi handiko eskuhartze kritikoa da inondik ere, baina, aldi berean, ez da nahikoa generoaren diskurtsoaren barruan ez dauden gorputzak ulertzeko; desberdintasun kolonialaren beste aldean dauden gorputzak. Generoaren kolonialtasuna, María Lugonesek argudiatzen duen bezala, generotik kanpo egotea da, hura soziabilitaterako baldintza gisa hartuta. Eta baztertze horretan ez dago performatibitate-rako baldintzarik, performatibitateak haren diskurtso eremuaren barruan egotea eskatzen baitu.

Interesgarria da, beraz, galdetzea, nork pentsatzen du zein gorputzek duten generoaren esparrua ekintza performatibo gisa eta zein diren

ikuspegi horretan ezabatutako gorputzak? Zer gertatzen da gorputza Mendebaldeko feminismo antiesentzialistaren bestelako genealogia eta jardunen bitartez *sentipentsatzen* denean?

Generoa sozialki eraikitakoa dela esan daiteke, eta, horregatik, kontestuala edo fluidoa eta performatiboa da, arrazarekin, klasearekin, sexualitatearekin eta abarrekin korapilatua; baina beti da feminista kritikoa garaikideen abiapuntu komuna. Eta abiapuntu komun horrek bereiziko ditu, hain zuzen ere, alde batetik generoa duen gorputzaren ulermen horiek eta/edo performatiboak eta, beste aldetik, desberdintasun kolonialak gurutzatua izan dela *sentipentsatze* abiatzen direnak.

Hain zuzen ere, geure buruari galdetzen diogunean 'nork pentsatzen duen zein gorputz diren genero performatibotik abiatuta eta zein gorputz ezabatzen diren eragiketa horren bitartez', orduan agerian gelditzen dira arraza/etnikotasunaren, generoaren eta sexualitatearen, klasearen eta abarren arabera interseksionatutako gure pribilegioak. Baina, beharbada, are garrantzitsuagoa da gogoeta horren helburuetarako ezberdintasun kolonialak gurutzatutako gorputzekin *sentipentsatzeak* adierazten duela horiek ez direla soilik generoaren ekintza errepikakorrak eta haien erresistentziak ezin direla soilik irakurri kontribuzio antiesentzialista feministek eskaintzen dituzten erresistentzia/botere bitarraren desegonkortze gisa. Bestelako geo-genealogia batzuetarantz jo behar dugu (ez-modernoak María Lugonesek proposatzen duen eta lehen aipatu den zentzuan), generotik kanpo dauden gorputzak izendatzen hasteko. Horixe da generoa bere kolonialtasunetik pentsatzeko María Lugonesen feminismo dekolonialetik egiten duen gonbidapena.

### *Gorputza eta generoaren kolonialtasuna*

Beste testu batzuetan azpimarratu dugu Oyewumik (Icaza, 2019, eta Icaza eta Vázquez, 2016) geo-genealogiarako lehen urratsak ematen laguntzeko egindako ekarpena. Oyeronke Oyewumik Nigerian dauden yoruba komunitatei buruz egindako azterketa etnografikoan esplorazio enpiriko bat egiten da, gogoeta egiteko Chandra T. Mohanty pentsalari poskolonialak aurretik feministei eskatutako berari buruz, hain zuzen ere, berriro pentsatzeko lekuetan sozialki kokatutako jakintzei buruz.

Oyewumiren analisia, ordea, urrats bat harago doa, eta erakusten digu gorputza ulertzeko modu batzuek genero kategoria gaingaitzen dutela. Hori posible da Oyewumik bere buruari eta, horrekin batera, bere irakurleari, honako hau kontuan hartzen uzten diolako: genero sozialki eraikia bada, orduan, garaien batean ez zen generorik izan. Bere ikuspuntutik, genero jada emandako zerbait bezala hartzen duten feminista kritikoak erabat zalantzan jartzea ekarriko luke galdera horrek, eta esan nahiko luke, orobat, zenbait praktika, erregimen eta izateko eta sentitzeko zenbait modu eta, hortaz, gorputza bera, ez lituzkeela generoak markatuko, beste zerbaitek baizik (Icaza, 2019).

Hain zuzen ere, María Lugonesen generoaren kolonialtasunaren nozioak zabaldu egiten du esplorazio hori, genero kolonialismoaren historian ainguratutako desberdintasun sexual sozializatu gisa teorizatzen baitu. Zentzu horretan, Lugonesek pentsatzen du genero gorputz arrazializatu ez-mendebalekoen gaineko dominazio kolonialeko mekanismoa dela. Izan ere, Lugonesek laguntzen digu ulertzen zer une historikotan bihurtzen den sistema espezifiko hori (sexua/generoa) azpiratzeko modua, bizimodu oro eraldatzeko eta gobernatzeko mekanismoa, kolonizatuak izan ziren pertsonen gorputzak eta subjektibotasunak kontrolatuz.

Gorputza desberdintasun kolonialetik *sentipentsatzeak* berekin ekarriko luke, orduan, kontsiderazio horren inplikazio epistemiko-sentsorialeki adi egotea, eta, aldi berean, gorputza-adimena bereizketa desmuntatzea (Méndez et al., 2013). Adibidez, genero-kategoriaren testuinguru geo-politiko, geo-historiko, geo-epistemiko eta, bereziki, korpo-politiko lokalizatzea ekarriko luke: nork pentsatzen du zer gorputzek eta zein enuntziario lekutatik egiten duten?

Generoa, heteronormatibitatea, patriarkia, emakumea, gizona, femeninoa eta maskulinoa eta abar barne hartzen dituzten analisi eta praxi feminista batzuen mugak identifikatu beharko lirakeke, kulturaz haraindikoak eta ahistorikoak izan daitezkeen analisi-kategoria gisa.

Gainera, esperientzia sentsualari adi egon beharko litzateke, hau da, dena dakiela uste duen subjektu moderno/kolonialaren ezjakintasun harroaren “ziurtasunak” alde batera utzi beharko lituzke. Harrokeria ezjakin horretatik zenbait

gorputzen historia “normal” gisa sortzen dituzte gorputzik gabeko zenbait jarrera gordinek, eta “gizateria” osoaren erakusgarritzat jotzen dituzte zenbait gertaera eta memorien historiak.

Ezjakintasun harroaren ziurtasunei uko egitea zauri koloniala ber-ezagutzeko, ezabatuta, isilduta, “pitzatuta” jakiteak eragindako mina, Gloria Anzaldúak adierazten digun bezala. Beraz, isilarazia eta ezabatua izan den guztian geure burua berriz ezagutzeko mugimendua da, ziurtzat hartuta genero eta patriarkia bezalako kategoriak, hau da, modernitatearen/kolonialitatearen kategoriak, baina, horrez gain, nola inplikatzeko garen.

### *Generoaren kolonialitatea*

Lugonesek generoaren kolonialitatea sistema moderno/kolonial gisa txertatzen du, “beste” arrazializatuaren gainean inposatua izan zena eta pertsona indigena eta esklabizatuak deshumanizatzeko efektua izan zuena, horrenbeste ezen animalizatuak izan baitziren, gizon/emakume araugintzan leku bat ukatu zitzaielako.

Lugonesen arabera, topaketa kolonialean, besteak ez zuen generorik, hura “gizatasunaren” ezaugarria baitzen: “Zibilizatu bakarrik da gizona edo emakumea” (Lugones, 2010b: 743). Horren ondorio semantikoa da ez dagoela emakume kolonizaturik. Kolonizatuarekin sexuarekin karakterizatu zen, baina ez generoarekin. Generoa, beraz, ez bada kategoria unibertsal bat/denboraren eta kulturen bidezko bizitza sozialaren sistema antolatzaile bat, funtsezkoa da honako hau galdetzea: Noiz ezarri zen genero sistema gisa, nola inplementatu zen zer gorputz, sexualitate eta subjektibotasun kontrolatzeko, eta, inplementatuta geratzean, nola ezabatu ziren/dira beste bizimodu, izate eta sexualitate batzuk kolonizatutako eta esklabizatutako pertsonen barneratu dituztenean?

Lugonesek argudiatzen duenez, generoaren kolonialtasuna lurraldearen, kapitalaren eta subjektibotasunen kontrolarekin lotzen da, eta horrek ondorio sakonak ditu gaur egungo bizitza zehatzetan. Horrela, generoaren ikuspegi geo-historikoa eskaintzen digu, botere moderno/kolonialaren mekanismo gisa, eta horretan guztian garapenaren rola identifikatzeko aukerari buruz hitz egiten du.

**Ondorioz, generoa abiapuntu gisa hartzen duten analisiek, eta ez haien kolonialtasunak, ezin digute lagundu erresistentzia dekolonialak ulertzen, Mendebaldeko esperientzia geo-politiko-korporal-epistemikoaren inposizioa gainditzen duten erresistentzia gisa, errealtate osotasun bezala.**

Gizateriaren eta ez-gizaki gisa ekoiztiko pertsonen arteko desberdintasun koloniala genero sistema kolonialaren bidez ikusarazten denean (sistema horrek heteronormatibitatea ezartzen du eta generoa ukatzen die animalizatuak, esklaboak, izan ziren pertsonen), genero kategoriak erabiltzen dituen mugak eta indarkeria ere identifikatzen ditugu. Kategoria hori lagungarri izan dakiguke *sentipentsatzeko* (Méndez, 2013) nola inposatu zuten, nola izendatu zituzten zenbait jardun eta bizimodu femeninoaren edo maskulinoaren adierazgarri; aitzitik, ezin digu lagundu kolonizaziotik, genozidiotik eta gorputz batzuen deshumanizaziotik abiatuta sexu/genero erregimen espezifiko bat ezarriz ikusezin bihurtutako esperientzia gorputzuak izendatzen.

Generoak, kategoria gisa, ezin digu lagundu ulertzen heteronormatibitatea kolonialitatearen bidez finkatu dela. Eta ezin digu lagundu ulertzen nola ezartzen eta indartzen dituen generoak epistemologia eta subjektibotasun menderatzaileak arau gisa, zeinak adierazten baitira behar bezain “giza” edo “progresibo” ez diren bizimodu tipologiaren inposaketa bidez, ez datozelako bat arau zuriarekin, heterosexual menderatzailearekin. Pentsa dezagun nola aztertzen diren genero harremanak garapen politiken produkzioan, haien jatorri koloniala zalantzan jarri gabe, alegia.

Orduan, generoa deskolonizatzea ez da posizio ideologiko bat, baizik eta nagusitzen diren feminismoen ezjakintasun monokulturalaren aurka borrokatzen duen posizio epistemiko bat. Generoaren kolonialitateak mugimendu erradikal bat dakar mundua ikusten, ulertzen eta harekin erlazionatzen garen moduan, pentsamenduaren lekua abstrakzioetik ahuleziara eramaten baitu. Feminismo zuriaren emaku-

meari buruzko ideia unibertsalari aurre egiten dio: emakume guztiak zuriak badira eta beltz guztiak gizonak badira, orduan zer esan nahi du emakume beltz, indigena edo koloreduna izateak? Hori da María Lugonesek feminismo beltzaren eskutik jorratzen duen galdera. Zuria ez den emakumeari begiratzeak aldaketa epistemiko handia dakar. Generoaren eta arrazaren banaezintasunari begiratzeaz gainera, erakusten du nola kolonizatu zen subjektu azpiratua, gizatasunik gabea eta sexualitate animalizatu, esanahi komunal eta kolektiboko iturriak ukatzen zitzaizkionean. Esanahi horiek gaur egun arte iraun dute, eta erresistentziaren eta errebeldiaren adierazpenak dira.

Ondorioz, generoa abiapuntu gisa hartzen duten analisiek, eta ez haien kolonialitateak, ezin digute lagundu erresistentzia dekolonialak ulertzen, Mendebaldeko esperientzia geo-politiko-korporal-epistemikoaren inposizioa gainditzen duten erresistentzia gisa, errealtate osotasun bezala. Jatorrizko herrietako afrikarren ondorengo emakumeen pentsamenduek eta sentimenduek agerian uzten dute emakume izateko aukera beste modu batera, ez hobea edo bakar edo esentzial bat, beste modu bat baizik.

### *Generoaren kolonialitatea eta garapena*

Zer gertatzen da, beraz, “garapentzat” hartzen dugunarekin, generoa bere kolonialitateetik –hau da, existitzen ez den zerbait bezala ekoiztu den horretatik– ulertzen denean; mundua izateko eta bizitzeko moduak, modernitateetik kanpo dauden gorputzak? Bada, garapenaren kolonialitatea galera gisa agertzen zaigula. Utzidazue galera horri buruz jarduten.

Rolando Vázquezekin batera, hurbilketa feminista dekolonial bat egin dugu garapenaren azterlanen oinarri epistemikoen gainean: hau da, geure buruari zera galdetu diogu, nolatan esaten da garapenari buruzko ezagutza ezagutu eta sortu behar dela? (Icaza eta Vázquez, 2017). Galdera horien bidez, garapena bi dimentsiotan aztertzea proposatu dugu: a) Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko bitartekaritza gisa, eta b) modernitatearen mugimenduaren artikulazio gisa, “besteak” eta lurra irudikatze eta haietaz jabetzeko.

Zer da, hortaz, garapena bitartekaritza gisa? Bada, funtsean, garapena ezin dela Mendebaldeko



modernitatearen historiatik bereizi, horrek dakarren guztiarekin. Garapenak banaketa moderno/kolonialaren irudikapen eta artikulazio gisa funtzionatzen du. Zatiketa moderno/kolonialaz ari garenean, gizakiaren eta basatiaren, zibilizazioaren eta naturaren arteko banaketaz ari gara, garapenaren nozioaren atzean dagoenari buruz, alegia.

Garapena Mendebaldeko tradizio epistemikoari dagokio, zeinak beretzat hartu baitu lurra-aren aniztasuna natura gisa eta munduko herrien aniztasuna “beste” gisa sailkatzeko autoritatea.



Pedro Lasch artista bisualarena da irudia. Mapa honetan uztartu egiten ditu ingelesa, gaztelania eta frantsesa, “indiar” eta “indigena” hitzen esanahian oinarritutako kartografia berri bat sortzeko. Ideia horien helburuetarako, kartografia horrek usteko iparralde-europar eta antropozentriko salbuespen batean zentratua den epistemologia bisualki eteteko aukera ematen du.

Garapenak, epistemologia euro-zentratu eta antropozentriko horren adierazpentzat hartua, gizateriaren baitakoa izatearen eta ez izatearen arteko muga markatzen duen bitartekaritza baten antzera funtzionatu du. Gure interesa garapenaren nozioa aztertzea izan da, kontsumitzen duenaren eta kontsumitzen denaren arteko bereizketa artikulatzeko duen funtzioaren arabera, hain zuzen ere.

### *Garapena: bizitzaren ikuspegi mono-kulturala*

Garapenak, errealitatea sortzeko kosmobisio, printzipio eta prozesu gisa, inplementatu duen naturarekiko harremanak, halaber, lurra-gorputza-lurraldearekiko harremanaren galera ekarri du, eta baita naturarekiko harremanaren

eta bizitzaren osotasunaren nozioaren galera ere (Vázquez, 2017).

Bestelako esanahia duten munduen galera (edo *worldlessness*); lurra-gekiko-gorputzarekiko harremanaren galera (*earthlessness*), pentsatzeko gaitasun gorpuztu eta kontestualaren galera (*enfleshlessness*); garapenaren kolonialitate deitzen diegun galerak (Icaza and Vázquez, 2017).

Bi irudi partekatzen ditut hemen zuekin: ezkerretara, Milpa Unitierra Oaxacan, hau da, kalabaza, frijoleak eta artoa nahastuta; eta eskuinaldean, Grieta Negra Taller tailer kolektibo autonomoko *Duintasunaren haziak loratzen direnean* grabatua.

Irudi horiek partekatzean, milpan jarri nahi dut arreta, teknologia zahar, bizikide eta pluribertsala baita, milaka urtez Mesoamerikan monolaborantzari eta monokulturari aurre egin diona. Eta enuntziazio leku horretatik ematen dugu, hain zuzen, azken urratsa hausnarketa honetan.



Irudia: Rosalba Icaza.

Garapenak, errealitatea sortzeko kosmobisio, printzipio eta prozesu gisa, implementatu duen naturarekiko harremanak, halaber, lurra-gorputza-lurraldearekiko harremanaren galera ekarri du, eta baita naturarekiko harremanaren eta bizitzaren osotasunaren nozioaren galera ere.



Irudia: Rosalba Icaza.

### *Garapenaren ikuspegi feminista dekolonialerako aurretiazko oharak*

Garapenaren analisi feminista dekolonialak bere botere efektuak eta mundua sortzeko bere prozesuak identifikatzen ditu, baina, horrez gain, bere kolonialitatea, beste mundu batzuk ezabatzeak dakartzan galerak (*worldlessness*), Lurra-gorputza-lurraldea kontsumo antropozentrikoa (*earthlessness*) eta pentsamendu gorpuztu eta kontestualaren ezintasuna (*enfleshlessness*). (Icaza eta Vázquez, 2017).

Feminismo dekolonialetan, garapena jabetze eta ordezkartza mugimenduen bidezko modernitatearen adierazpentzat hartzeaz gainera, errealitatea sortzeko prozesutzat ere hartu nahi

dugu, eta horrek, konponbide instituzionaletan eta produkzio prozesuetan ez ezik, subjektibotasunen eraketan ere izan du eragina (Icaza eta Vázquez, 2017).

Hemen azaldutako hausnarketak, ezinbestean, mugarri ditu garapenaren azterketen esparruan irakasle gisa egindako ibilbide luzea, baina baita arrazakeriaren eta kapitalismoaren heriotza proiektuaren aurkako erresistentzia kolektiboen parte gisa egindakoa ere.

Feminismo zuri euro-zentratuari interpelatzen diogu, eta, aldi berean, feminismo dekolonialetan (Lugones, 2010a, 2010b), komunitariolurraldekoetan (Cabnal, 2019), arrazakeriaren aurkako afro-europarretan (Wekker, 2016) eta beheko eta ezkerreko aktibismoetan (Leyva, 2018) ispiatzen gara, hortik abiatuta taldean eraikitzen eta sendatzen jarraitzeko.

Horregatik ikasi, pentsatu eta bizi nahi ditugu garapenaren alternatibak, zeinak ez baitatozten oparotasunaren eta gizatasunaren diskurtsoa hobeto egokitzetik, baizik eta gizatasunaren noziotik, banaketa moderno/kolonialeatik eta Lurraren eta “besteen” kontsumoak dakarren antolamendu antropozentrikotik bereiztetik.

### **Bibliografia**

- Cabnal, Lorena (2019): “El relato de las violencias desde mi territorio-cuerpo-tierra”, in Rosalba Icaza eta Xochitl Leyva (2019) (ed.) *En Tiempos de Muerte. Cuerpos, Rebeldías, Resistencias*. CLACSO, Argentina; RETOS, Mexiko; ISS; the Netherlands, 113-126. or.
- Icaza, Rosalba (2019): “Sentipensar los cuerpos cruzados por la diferencia colonial”, in Rosalba Icaza and Xochitl Leyva (2019) (ed.) *En Tiempos de Muerte. Cuerpos, Rebeldías, Resistencias*. CLACSO, Argentina; RETOS, Mexiko; ISS; the Netherlands, 27-47. or.
- Icaza, Rosalba; Sara de Jong; Olivia Rutazibwa, ed (2019): *Decolonization and Feminisms in Global Teaching and Learning*, Londres: Routledge.
- Icaza, Rosalba (2018): “Social Struggles and the Coloniality of Gender”, in Robbie Shilliamy Olivia Rutazibwa, ed. *Routledge Handbook on Postcolonial Politics*, Londres: Routledge, 58-71. or.

- Icaza, Rosalba eta Rolando Vázquez (laster) Vulnerability and the Coloniality of Performativity, special issue edited by Sara C Motta, forthcoming.
- Icaza, Rosalba eta Rolando Vázquez (2017): “Methodological notes on the Decolonization of Development”, in Josef Estermann, ed. *Entwicklungs begriff auf dem Prüfstand – Wie wir die Zukunft im Norden und Süden gestalten möchten*, Comundo: Luzerna, Suitza, 47-62. or.
- Icaza, Rosalba eta Rolando Vázquez (2016): “The Coloniality of Gender as a Radical Critique of Developmentalism”, in Wendy Harcourt, ed. *The Palgrave Handbook on Gender and Development: Critical engagements in feminist theory and practice*, UK, Palgrave, 62-76. or.
- Leyva, Xochitl (2019): “Undoing colonial patriarchies: life and struggles pathways” in Icaza, Rosalba; Sara de Jong; Olivia Rutazibwa, ed. (2019) “Decolonization and Feminisms in Global Teaching and Learning”, Londres: Routledge, 43-59. or.
- Lugones, María. (2010a): “The Coloniality of Gender”, in *Globalization and the Decolonial Option*, Walter Mignolo eta Arturo Escobarrek editatua, 367-390. or. Londres: Routledge.
- Lugones, María. (2010b): “Towards a Decolonial Feminism”. *Hypathia*, 4: 742-759. or.
- Méndez Torres, Georgina et. al. (koordinatzailea) (2013): Senti-pensar el género: perspectivas desde los pueblos originarios; Mexiko: Red Interdisciplinaria de Investigadores de los Pueblos Indios de México, Asociación Civil (RedIINPIM, A.C.); Red de Feminismos Descoloniales; Hermenegildo Olguín Reza, La Casa del Mago Taller Editorialaren zuzendaria.
- Mignolo, Walter (2013): *Dewesternization, Rewesternization and Decoloniality: The Racial Distribution of Capital and Knowledge, Public Lecture given at the Centre for the Humanities*, University of Utrecht, May 13th, 2013.
- Quijano, Anibal (2000): ‘Coloniality of Power, Ethnocentrism, and Latin America’, *Nepantla*, 1. alea, 3. zk., 533-580. or.
- Vázquez, Rolando. (2014): “Colonialidad y Relacionalidad”, in *Los desafíos decoloniales de nuestros días: pensar en colectivo*, edited by María Eugenia Borsani eta Pablo Quintero, 173-96. Neuquen, Argentina: EDUCO/ Universidad Nacional de Comahuep.
- Vázquez, Rolando (2017): Precedence, Earth and the Anthropocene: Decolonizing Design. *Design Philosophy Papers*, DOI: 10.1080/14487136.2017.1303130
- Wekker, Gloria (2016): *White Innocence. Paradoxes of Colonialism and Race*. Duke University Press.



**Juan Telleria:** Filosofiako Doktorea UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatean, irakaslea UPV/EHUko Letren Fakultatean eta ikertzailea unibertsitate bereko HEGOA Institutuan. Atzerriko unibertsitateetan jardun du ikertzaile gisa, hala nola University of North Carolina (Estatu Batuak) eta University of Essex (Ingalaterra) unibertsitateetan. Nazio Batuen garapen diskurtsoen azterketa kritikoa jartzen du arreta bere ikerketak: NBGParen Giza Garapenaren ikuspegia, Milurtekoaren Garapen Helburuak eta Garapen Iraunkorreko Helburuak.

Erdi Arotik Modernitaterako trantsizioaren ezau-garri bereizgarrienetako bat, Europan, honako hau izan zen: errealitatea ulertu eta eralda zitekeela, halako eran non gizadi osoari bizitza bete, baketsua eta harmoniatsua eman ziezaiokeen. Hamar mendez baino gehiagoz bakea eta harmonia hori munduaz haraindiko existentzia baten bidez iritsiko zela pentsatu ondoren, lurrian jarri zuten arreta Europako elite intelektualek. Ezagutza zientifikoak paradisua lurrian lortzeko aukera eskainiko zigula oinarri hartzen zuen alditzat ulertu zen modernitatea. Erronka berri horretan, lehenik, mundu naturala ulertu behar zen, ongizatearen oinarri materialak ziurtatzeko (natura zientziak), eta, bigarrenik, gizakiak ulertu behar ziren, haien beharrak, nahiak, motibazioak, jokabidea eta helburuak, hamar mendez zeruetatik etorriko zela uste izan zena lurrian edukitzea ahalbidetuko zuten gizarteak sortu ahal izateko (gizarte zientziak). Hortaz, mundua ulertzeko eta, ustez, eraldatzeko eta hobetzeko aukera ematen zuen gaitasunari lotuta geratu zen ezagutza. Une horretatik aurrera, Europako historia kulturalak eta politikoak etengabe bilatu zuen paradisua lurrian. Baina ametsa ez zen bete. Eta errealitatea menderaezina dela ikusi da.

Garapenaren logikek amets hori irudikatzen dute, paradigmatikoki. Bai eta porrot hori ere. Adibide gisa, garapenaren logiken ordezkari handienetako baten kasua dugu: Nazio Batuen Erakundea. 1945ean erakunde horren hezur-mamitzea ekarri zuen gutunaren hitzaurreak erronka hauek hartzen zituen bere gain: gerra saihestea, pertsonen oinarritzko eskubideak eta duintasuna bermatzea, gizartearen aurrerapena sustatzea, bizi-maila hobetzea, pertsonen askatasuna bermatzea eta nazioartean bakeari eta segurtasunari eustea, lankidetzaren eta elkarriket-

taren bitartez. Hirurogeita hamar urte geroago, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan alderdi hauek aipatzen dira “gaur egungo gure munduaren” deskribapenean: pobrezia, duintasunik eza, desberdintasun gero eta handiagoak, osasunerako arriskuak, hondamendi naturalak, ingurumenaren degradazioa eta baliabideen agortzea, terrorismoa, krisi humanitarioak eta nahitaezko lekualdatzeak (NBE, 2015: 14. art.). Beste behin ere, errealitatea menderaezin agertzen da. Baina Agenda 2030ek mundua eraldatzera bultzatzen gaitu berriro ere. Testu honek bi egileren gogoetak biltzen ditu, zeinak lagunduko baitiguten mundua eraldatzeko ahalegin hori beste ikuspegi batetik ulertzen.

### *Unibertsalismoa-partikularitasuna eta humanismo sekularra*

*Emancipation(s)* lanean (1996), Ernesto Laclauk mundu hobe baten bilaketa amaigabe horri buruzko gogoeta egiten du. Laclauk unibertsaltasunaren eta partikularitasunaren bitartez kontzeptualizatzen du arazoa. Bi termino horien arteko harreman konplexua ulertzeko, Laclauk atzera egiten du, Mendebaldeko filosofiaren hastapenetara, Greziara alegia, non lehen filosofoek lerro argi bat marraztu baitzuten unibertsalaren eta partikularren artean. Lehengoak perfektuaren, absolutuaren, aldaezinaren eta betierekoaren eremua irudikatzen zuen. Bigarrena, berriz, haren kontrakoa zen: imperfektua, iragankorra eta aldakorra. Unibertsala egia espazioa zen; eta partikularrak, berriz, egia horren garbitasuna usteldu baino ezin zuen egin (Laclau, 1996:22). Mende batzuk geroago, kristautasunak arazo filosofiko hori heredatu zuen, baina beste modu batera konpondu zuen. Jainkoa unibertsalaren eta partikularren arteko bitartekari bihurtu zen, bere haragitzearen eta

errebelazioaren bidez. Kristautasunaren arabera, haren presentziak eta hitzak gidatu behar zuen gizateria –partikularitasunean eta imperfekzioan murgildua– egia unibertsalaren eremura, mundu lurtarraren imperfekzio aldakorrez haraindi. Horrela, Laclaren arabera, Mendebaldeko tradizio intelektualean eragin handia izango zuen figura berri bat agertu zen: *historiaren eragile pribilegiatua*, zeinaren existentzia berezia unibertsaltasunaren adierazpentzat hartuko baitzen. Modernitatea iritsi zenean, Europak bere gain hartu zuen zeregin hori, eta, hortaz, baita mundu imperfektua garbitasun eta perfekzio fase berrietara eramateko eginkizuna ere.

Europako kultura berezia zen, eta, aldi berean, gizakiaren esentzia unibertsalaren adierazpena (...). Eurozentrismoaren formak gorpuztearen logikaren ondorio urrunak baino ez dira (...). Inperialismo europarraren hedapena zibilizazio unibertsalerako eta modernizaziorako prozesu gisa aurkeztu behar zen. Beste kultura batzuen erresistentziak, beraz, ez ziren identitateen eta kultura partikularren arteko borroka gisa aurkezten, unibertsalaren eta partikularren arteko borroka gisa baizik (Laclau, 1996: 23-24).

Laclaren arabera, Mendebaldeko mundu hobe baten (eta haren etengabeko porrotaren) bilaketa amaigabe hori partikularren eta unibertsalaren arteko harremana tradizionalki kontzeptualizatze moduaren ondorio bat besterik ez da.

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, Talcott Parsons soziologoak Laclauk proposatutakoaren antzeko hausnarketa egin zuen. *Action Theory and the Human Condition* (1978) lanean, Parsonsek Europako modernizazio eta sekularizazio prozesuei buruzko gogoeta egiten du. Tradizionalki, soziologiak onartu izan zuen prozesu horiek funtsezko sinesmenak (erlijiosoak) alde batera utzi behar zirela, arrazoibidearen eta antolaketa arrazionalaren alde. Parsonsek bestelako hipotesi bat proposatzen du: erlijioaz hornitutako ereduak gizartearen eremu laiko eta sekularretarako egokitzapen gisa ere uler daitezke prozesu horiek (Parsons, 1978: 240). Hau da, erlijioa alde batera uztea baino gehiago, modernizazio eta sekularizazio prozesuak sinesmen erlijiosoen funts oinarritzkoenak erlijioz kanpoko bizitzarako egokitzapentzat har litezke. Horrela sortu zen soziologo hark definitutako “humanismo sekularra”.

Humanismo hori azaltzeko, tradizio judeo-kristauak Mendebaldeko munduan izandako eragina aztertzen du Parsonsek. Zehatzago esanda, gizakiaren ikusmolde duala aztertzen du: alde batetik gizakia usteldutako eta halabeharrez bekatuan murgildutako izakia da, eta, beste aldetik, Jainkoaren irudia da. Parsonsek azaltzen du jatorri erlijiosoko dualismo hori ez dela Modernitatean desagertu, aitzitik, berregituratu egin dela eta mundu moderno eta aurrerapena kontzeptualizatze modua mugatzen duela. Horrez gainera, Mendebaldeko kosmobiarioaren kontraesan asko ere mugatzen ditu. Era horretara, inoiz iristen ez den gizakion izaera ideal eta funtsezkoa burutzearen etengabeko bilaketa gisa kontzeptualizatzen du historia Mendebaldeak (Parsons, 1978:241).

Bi egileek, Laclauk eta Parsonsek, aurrerapenaren ideien sustrai erlijioso eta transzendentelak azaltzen dituzte, eta azaltzen dute Mendebaldeko tradizioan munduaren irudia historiaren ulermenari lotuta gelditzen dela. Mendebaldeko historiaren eragile pribilegiatutzat hartzen du bere burua, hau da, partikularra gaintzeko eta unibertsalaren garbitasuna eta perfekzioa lortzeko borroka betierekoaren abangoardiatzat. Laclauk azaltzen duen bezala, Mendebaldearen presentzia eta egia dira gorpuztearen eta kristau egia bertsio moderno, zeinak bitartekari egiten baituen alde batetik beren partikularitasunean harrapatuta daudenen eta bestetik oraindik etortzeke dagoen harmonia eta bakerako espazioaren artean.

### *Garapena eta alternatibak*

Garapenaren logiken esparrura itzuliz, Laclau eta Parsonsen kritikak azalpen eskema orokor bat eskaintzen du, ulertzeko, adibidez, zergatik baieztazen duten Nazio Batuek XX. mendean erdialdean hasitako garapen proiektuak porrot egin duela eta zergatik bultzatzen gaituzten, aldi berean, proiektu horretan sinesten jarraitzera. 1950eko hamarkadan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak lehen garapen estrategia globala onartu zuen, Garapenaren Hamarkada izenarekin ezagutzen dena. Haren ondotik etorri ziren bigarrena (1960ko hamarkadan), hirugarrena (1970eko hamarkadan), laugarrena (1980ko hamarkadan) eta bosgarrena (1990eko hamarkadan); horiek ordeztu zituzten Milurtekoaren Adierazpenak (2000) eta Milurtekoaren Garapenaren Helburuak (2000-2015), eta horiek, aldi berean, gaur egungo 2030 Agendak

(2015-2030) ordezkatu ditu. Bitxia bada ere, eta goian aurkeztutako matrize unibertsalistak sortzen dituen kontraesanen barruan, Garapenerako Nazio Batuen Programak 2019ko txostenean azaltzen duenez, gaur egungo joerek aditzera ematen dute Agenda 2030 ezin izango dela bete eta oraingo desberdintasunek baldintzatu egingo dituztela bizi-itxaropenak... XXII. mendean! (NBGP, 2019: 1-3). Hala eta guztiz ere, txosten horrek berak garapenean sinesten jarraitzera bultzatzen gaitu, eta baieztatzen du joera negatibo hori aldatu egin daitekeela baldin eta *orain* jarduten badugu, “Botere ekonomikoaren desorekek nagusitasun politiko sakona ekarri aurretik” (sic) (NBGP, 2019:4).

Nazio Batuen Erakundeak leialtasunez erreproduzitzen ditu Mendebaldeko kosmobisioaren oinarritzako hiru adierazpenak, Laclau eta Parsonsen kritikak nabarmenduak. Lehenik, Nazio Batuen 75 urteko historiak kontrakoa adierazten badu ere, *errealitatea objektiboki uler eta eralda daitekeela* oinarri hartzen duen uste modernoa errepikatzen du erakundeak, gure interesetara egokitzeko. Bigarrenik, uste osoa dugu, maila ideal eta teorikoan bada ere, gizaki guztiak asebetetzen dituen *harmonian eta bakean oinarritutako bizikidetza* lortuko duela gizateriak etorkizunean. Eta hirugarrenik, zibilizazioaren egoera horretara eraman gaitzaketen *formula unibertsalak daudelako* ziurtasuna. Ez da harritzekoa erakunde horrek onarpen horiek leialki errepikatzea. Nazio Batuen sorrera adibide historiko argia da, non Mendebaldeak bere gain hartzen baituen historiaren eragile pribilegiatuaren rola, mundu hobe baterantz gidatu behar duena gainerako gizateria. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren, Estatu Batuek eta Erresuma Batuak, SESBen onespenerekin, forma eman zioten gerra osteko *status quo*a sendotuko zuen erakundeari, bere eginez potentzia garaileen interesak gizateria osoaren interesak zirela.

Laclau eta Parsonsek egindako kritikaren alderdirik interesgarriena da boteretik hurbil dauden instantzietatik datozen garapen proposamenei buruz hitz egiteaz gain, garapen hegemonikoaren logiketarako alternatiba praktikoak eraitzeko zailtasunari buruz gogoeta egiteko ere balio digula. Logika hegemoniko horiek kritikatu eta benetako alternatibak bilatzen ditugunok, gai al gara Laclauk eta Parsonsek azaldutako Mendebaldeko logika unibertsalistak ezarritako eskema estua saihesteko? Zehazki, lehen aipatutako hiru elementuetara itzuliz.

- Prest al gaude *errealitatea manipulagarria* dela eta gure proiektu politiko eta sozialei forma emateko egokitu dezakegula zalantzan jartzeko?
- Gai al gara kezkatzen gaituzten arazorik gabeko *etorkizuna egon daitekeenaren* uste sendoan oinarritzen ez diren alternatibak egituratzeko, maila teorikoan bada ere?
- Imaginatu al dezakegu *legitimazio elementu unibertsalik* ez duen proiektu politiko bat?

Gure onarpen sakonenen inertzia isilak sinestarazi diezaguke galdera horiek ez dutela zentzu handirik. Arazoa da benetako sakontasunean planteatzen ez ditugun bitartean eta modu berri-tzailean erantzuten ez dakigun bitartean, aldaketarako edozein ekimenek errepikatuko dituela gainditu nahi duen horren sinesmen sakonena. Eta hori ez da aldaketarako formularik onena, inondik ere.

## Bibliografia

- Laclau, E. (1996): *Emancipation(s)*, London: Verso.
- ONU (2015): *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*, New York: Nazio Batuak.
- Parsons, T. (1978): *Action Theory and the Human Condition*, New York: Macmillan Publishing.
- NBGP (2019): *Informe sobre Desarrollo Humano 2019. Más allá del ingreso, más allá de los promedios, más allá del presente: Desigualdades del desarrollo humano en el siglo XXI*, New York: NBGP.